

## Zeberiko lehenengo mendi duatloia hilaren 15ean izango da

10. orrialdea

## Dimako ipuin erotikoen lehiaketea Idoia Garzes kazetariak irabazi dau

Idoia Garzes Aldazabal gipuzkoarrak eroan dau aurtengo Dimako ipuin erotikoen lehiaketea. Bigarren saria, Mattin Izagirreraren "Baño ze ostia dek hau" ipuinarentzat izan da. Arratiako ipuinik onena Zefe Ziarrusta dimoztarraren "Haizearen orrazia" izan da. **12. orrialdea**



## Sofia Coppolaren hiru filma Igorreko zine klubean

13. orrialdea

TOKIKOM

# begitu

arratia ubide zeberio

# 239

2015eko zemendiaren 3a hamabostekaria  
www.begitu.org

## Childrain, Dimako heavy metal jaialdian



Dimetal Fest zemendiaren 14an.

**D**imetal Fest, heavy metal musikako jaialdia antolatu dau lehenengoz musika hau gustuko dauan dimoztar talde batek. Egunean zehar, herritarrak parte hatzera animetako eta girotzeko mahai-ingurua, bazkaria, bertsolariak eta beste ekitaldi asko egongo dira.

Kontzertuak iluntzeko zortziretan hasiko dira eta metal musikearen ugaritasunaz disfrutatuko aukerea eskeiniko dabe. Musika gogorra Gasteizko Childrain taldeak egingo dau. The Wizard eta Unholy Covers taldeak metal klasikoak eskeiniko dabe; Nik Khaos-ek, barriz, new metal edo metal alternatiboa, eta Celtiberian taldeak, rock gogorra musika zelta estiloko folk-agaz nahastuten dau. Atzenik, Sepultadok, trash metala egingo dau.

Kotxea edo autobusa hartu aurretik, atsedena hartu ahal izango da horretarako presatuko daben atsedean gunean. **8. orrialdea**

## Arteako umeak eta Lucy



Arteako eskolako bigarren zikloko ikasleak.

**U**rteak deroez Arratiako ikastetxeetako neska-mutikoak BEGITU idazten. Ikasturtean zehar zenbakiro topauko dozue 13. orrialdean Dunba atala eta berau Areatza, Arte, Dima, Igorre, Lemoa, Zeanuri eta Zeberiko eskola eta institutuak eta Zulaibargo ikasleak beteten dabe. Zenbaki honetan BEGITUkook suberte itzela euki dogu Arteako eskolako umeak batera atal hau landu dogulako. Lehenengo Lucyren historia kontau euskuen ikasleak, eta gero eurek

egindako testua, ordenagailua eta arbel digitala lagun, danon artean maketau genduan. Eskerrik asko, orain ikasle, eta Arratiako etorkizuna diran Oier Agirre, Aratz Cabezas, Libe Echevarria, Eider Egia, Martxel Erdozia, Nerea Estivez, Uxue Etxebarria, Jagoba Fernandez, Irupe Fresneda, Joseba Fresneda, Nahia Goikuria, Oier Ibarretxe, Ibon Ormazabal, Paule Orozko, Oier Penñafiel, Naia Ramos eta Peio Tolosari, eta Esti Garcia eta irakasle guztiai. **13. orrialdea**

### ARRATIA

## Aurrekontuak Arte, Igorre eta Lemoan



2016ko aurrekontuak egiteko herritarrek batzarrak egiten hasi dira Artean, Igorren eta Lemoan.

Artean lehenengo aldian da metodologia hau erabiltzen dala eta hiru batzar egingo dira. Igorren auzotarrak eta batzar sektorialak egingo dabez zemendiko lehenengo hamabostaldian. Eta Lemoan be segiduten dabe aurrekontuak diseinetan. **5. orrialdea**

### IGORRE

## Herriko XX. mendeko historia jasoten dauan erakusketea Kultur Etxean

Hogeta hamabi igorreztarrek XX. mendeko hasikerea, gerra denporea, gerra ostea eta industrializazioa kontetan dabe Memoriaren Bankuak egindako grabazioetan. Grabazioak ikusgai izango dira zemendiaren 6tik 26ra Igorreko Kultur Etxean egongo dan erakusketan. Testigantzak historia lerro baten egongo dira kokatuta eta bertan adierazoko da dokumentaleko zein minututan dagozan. Sasoi horreetako argazkiak be ikusgai egongo dira hamaika paneletan.

Erakusketak XX. mendea jasoten dau, azken 20 urteak salbu. Baina



lana ez dago amaituta. Udalak Memoriaren Bankua elikatzen jarraitu gura dau eta herritarren oroitzenak eta argazkiak batzuan segidu, herritarrak bertan gertatutakoa jakin dagien, eta ikerketak egiteko informazio iturri moduan.

Inaugurazio ekitaldia zemendiaren 6an izango da, arrastiko zarpiretan, Kultur Etxean. Han, egileak batera, euren historia kontau daben herritarrak egongo dira. **9. orrialdea**

ezkur oinetakoak



Orain umeentzako oinetakoak bell



Lehendakari Agirre 14 · Igorre · 94 673 62 24

## ARRATIA ZURI-BALTZEAN

## OSPITALEA ARRABAKO LANDAN

Guzurra badirudi be, Gorbeian, Arrabako landan, birikeria edo tuberkulosia osatzeko ospitalea egoan XX. gizaldiaren hasieran. Sasoi haretako tuberkulosiari buruzko nazioarteko kongresuetan zabaldu ziran ikuspegi barrien ondorioa da Gorbeian sanatoria ipinteko idea: 800 metrotik gorako altueran, aire garbia eta hautsik bakoa, giro sikua, presino atmosferiko bajua eta argi asko eukien tokietan ospitaleak eregittea gomendatzen zan Berlin eta Napolesen egindako adituen bazarretan. Eta Gorbeian jarri eban begiak Jose de Madinabeitia mediku gipuzkoarrak.

Lehenengo behin-behineko esperientzia 1899ko udan burutu eban Igeriñan. Uda oso ona egin

ebanez, gaixoen osasunak hoberrantza egin ei eban.

1900. urtean esperientzia errepikatu egin eban hogeiren bat gaixogaz; bi eta lau persona hartzeako egurrezko txabolak eregi eban. Uda gogorra izan arren, gela egokiai eta janari onari esker, gaixoen egoerak hobera egin ei eban eta Gorbeia, Alpeetan egozan moduko ospitale bat jartzeko leku aproposa zala pentsau eban Madinabeitiak.

1900etik 1901era joian neguan, Zeanuri eta Orozkoko Udalak Lekandako hatxak babesten dauan 80 hektareako lur saila ixtea lortu eban Madinabeitiak Arrabako landan. Udal biak lurragaitik eskatu eutsien gauza bakarra zera izan zan: herri bakotzeko gaixo bi

debalde jagotea.

1901. urtearen hasieran Sanatorios del Gorbea, Sociedad Anónima alkarte sortzean dabe, 500.000 pezetako kapitalagaz. Kideen artean honako izen honeek agertzen dira: Tomás-José de Epalza, Victoriano Zabalaincheta, Ramón de la Sota, Rafael Picavea, Marcos Iruarrizaga Areatzako botikarioa...

1901eko maiatzaren 6an Arrabarako bidea zabaltzeko obrak hasten dira; neguan gelditu behar izan baebezan be, 1902ko martian barriro jarri ziran martxan. Bide hau Andramarioturaino heldu zan, 11.081,61 pezetako kostuz.

1901, 1902 eta 1903 urteetan obrak egiteaz batera, uda partean gaixoak hartzean dabez ospitalean: hogeta hamahiru, 1901ean; hamazazpi, 1902an eta hogeta



Arrabako landan egoan ospitalea eta eleizearen arrastoak. XX. gizaldiaren hasierarantz. Argazkia: Foto Ojanguren.

hamahiru, 1903an.

Itxura baten 1903koa izan zan ospitaleak ateak zabalik euki eba-

zan azken urtea. Arazo ekonomikoak bere heriotza ekarri eben.

Jon Urutxurtu

## TELEFONO INTERESGARRIAK

## Larrialdiak

Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00  
S.O.S. DEIAK 112

## Guardiako Farmaziak

09:00etatik 22:00etara  
Zemendiaren 2tik 8ra

Goikoetxea. Dima. Ugarana 33  
Tel.: 94 673 70 54

22:00etatik 09:00etara

Iruarrizaga. Amorebieta-Etxano.

Zemendiaren 9tik 15era

Ibarrola. Zeanuri. Arregia kalea 1  
Tel.: 94 673 93 95 eta 609 402 908

22:00etatik 09:00etara

Aranburu-Guarrotxena. Amorebieta-Etxano.

Zemendiaren 16tik 22ra

Rodríguez Martínez. Igorre. Agirre Lehendakaria 27  
Tel.: 94 673 61 09

22:00etatik 09:00etara

Guarrotxena. Amorebieta-Etxano.  
Zeberioak ez dau guardiarik egiten.

Urte osoan

22:00etatik 09:00etara

Lucía Luño. Kareaga Goikoa 16. Basauri.

Medikuak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 11

Areatza: 94 631 71 52

Bedia: 94 631 34 13

Dima: 94 631 56 30

Igorre: 94 600 74 63

Lemoa: 94 631 31 16

Ubide: 945 45 03 61

Zeanuri: 94 673 91 49

Zeberio: 94 648 20 79

Udaletxeak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 05

Areatza: 94 673 90 10

Bedia: 94 631 42 00

Dima: 94 631 57 25

Igorre: 94 631 53 84

Lemoa: 94 631 30 05

Ubide: 945 45 03 22

Zeanuri: 94 673 91 46

Zeberio: 94 648 10 79

Udalen Mankomunitatea

94 631 17 17 / Faxe 94 631 92 15

Gorbeialde

94 631 55 25 / Faxe 94 631 71 01

Parketxea

94 673 92 79

Igorreko Kultur Etxea

94 673 62 51

Gorbeialde Irratia

94 631 52 90

Trenak

Euskotren 902 543 210

## Bizkaibus\* 902 222 265

Zeanuri-Lemoa-Ospitalea-Bilbo

Lanegunetan: Lehenengo 05:00etan.

Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era.

Orduro: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua 22:00etan.

Zapatuetan: Lehenengo 05:00etan.

Orduro: 05:45etik 21:45era.

Jaiegunetan: 07:45etik 21:45era orduro.

Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri

Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era orduro.

Jaiegunetan orduro 07:15etik 22:15era.

Durango-Lemoa-Ospitalea-Bilbo

Lanegun eta zapatuetan: 06:30etik 22:30etara 30 minuturo, azkenengo 22:15ean

Galdakaoraino.

Jaiegunetan: 07:00etatik 22:00etara 30

minuturo, azkenengo zerbitzua 22:45ean

Galdakaoraino.

Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Durango

Lanegun eta zapatuetan 06:30etik 22:30era 30 minuturo.

Jaiegunetan 07:00etatik 22:30era 30 minuturo.

Ubide-Otxandio-Lemoa-Bilbo

Ubidetik urteerak, lanegun eta zapatuetan: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Jaiegunetan: 08:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Otxandiotik urteerak:

Lanegun eta zapatuetan: 06:55etik 20:55era orduro.

Jaiegunetan: 08:55etik 20:55era orduro.

Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide

Lanegun, zapatu eta jaiegunetan,

Otxandiora: 06:45etik 20:45era orduro.

Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Zeanuri-Lemoa-Bilbo (Autopistatik)

Lanegunetan: 07:00etan lehena, eta 08:15etik 21:15era orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Bilbo-Lemoa-Zeanuri (Autopistatik)

Lanegunetan: 07:00etatik 21:00etara orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago

zerbitzurik.

Artea-Zeberio-Arrigorriaga

Arteatik urteerak lanegun eta zapatuetan 06:55ean eta 13:55ean.

Jaiegunetan ez dago zerbitzurik ez.

Zeberio-Arrigorriaga

Lanegun eta zapatuetan 07:10, 08:10, 09:10, 11:10, 14:10, 15:10, 16:10, 18:10, 19:10, 20:10

Jai egunetan 08:10, 11:10, 14:10, 17:10, 20:10.

Arrigorriaga-Zeberio-Artea

Arrigorriagatik 12:40ean urtetan dan zerbitzua Arteaoraino heltzean da lanegun eta zapatuetan.

Jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Arrigorriaga-Zeberio

Lanegun eta zapatuetan, 07:40, 08:40, 10:40, 12:40, 14:40, 15:40, 17:40, 18:40, 19:40, 20:40.

Jai egunetan, 10:20, 13:20, 16:20, 19:20.

La Union\* 94 427 11 11

Bilbo-Gasteiz

Lanegunetan: Ubidekoak 09:15ean urtetan dau eta Otxandioak 16:00etan.

Zapatuetan: Ubidekoak 09:00etan eta

16:30ean urtetan dau Bilbotik.

Jaiegunetan: Ubidekoak 10:00etan urtetan dau eta Otxandioak 18:30ean.

Gasteiz-Bilbo

Lanegunetan: Ubidekoak 09:00etan eta

16:15ean urtetan dau Gasteizetik eta

Otxandioak 10:30ean.

Zapatuetan: Otxandioak 10:30ean urtetan

dau Gasteizetik eta Ubidekoak 16:30ean.

Jaiegunetan: Ubidekoak 16:30ean urtetan

dau Gasteizetik. Otxandioak ez dago.



Argitaratzailea: ZERTU Kultur Elkartea.

Helbidea: Herriko Plaza 24, 48142 Artea.

Telefonoa: 94 631 73 14.

Helbide elektronikoa: begitu@topagunea.com

Webgunea: www.begitu.org

Zuzendaria: Iñigo Iruarrizaga.

Erredakzino burua: Beatriz Azpiri. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 112.

Erredakzino taldea: Ainhoa Duñabeitia, Irati Urien eta Jon Urutxurtu.

Maketazinoa: Beatriz Azpiri eta Iñigo Iruarrizaga.

Publizidadea: Iñigo Iruarrizaga. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 115.

Banaketea: Marta Rodríguez, Pablo Rodríguez eta Rut Rodríguez (Lemoa eta Bedia), Ibai Milikua (Areatza), Iratxe Arribas (Zeanuri), Berbizkunde Arroita (Zeberio), Amaia Uriarte (Dima), Esti Olibares, Igor Perez eta Azibar Sagarna (Igorre) eta Ainhoa Mendia eta Irati Urien (Arantzazu, Artea eta Ubide).

Tiradea: 6.800 ale.

Inprimategia: Iparragirre Editoriala.

Ale kopurua 6.800 / Lege gordailua SS-512/02 / ISSN zenbakia 1579-5519

## Babesleak:



Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundutakoa



Bizkaiko Foru Aldundia  
Diputación Foral de Bizkaia  
Kultura Saila  
Departamento de Cultura



## ZEURE BERBEA

### Cementos Lemona eta Bedia

Joan dan urri bigarrenaren 13an Udaltzako Bedia egin eban batzarrean, gaietako bat izan zan Cementos Lemona S.A.-ri baimena emotea Apario mendian lehengaia aterateko.

Aparion aspalditik dabiz Lemoako aldetik lehengaia ateraten, baina hori amaitzen doa eta enpresearen etorkizunari begira 8-10 urterako jardura dago ziurtauta, enpresako teknikarien esanetan. Bediako lurretan dagoan mendi zatian jarraitzeko baimena euki ezker, 30 urte ingurura luzatuko litzateke jardurearen garrantia, beti be teknikarien ustez.

Orain arte Bediako Udalaren jarreea ezezkoa izan da, baina ikusita enpresa horrek gure herrian eta eskualdean daukan eragina,

baimena emoteko momentua dala erabagi dau udaleko EAJ-PNV taldeak.

Ez dira urte asko Cementos Lemona huelgan egon zala, gure herriko beste enpresa batzuk batera. Zelan edo halan enpresek aurrera egin eban, eta orain gure esku dagoan erabagi honetan lagundu behar dogula ikusi dogu.

Gure herriko hainbat familiaren bizimodua dago jokoan, eta ondoko herrietan beste hainbeste. Lanpostu horreei eutsi eta, ahal dala, barriak lortzeako helburuak eraginda hartutako erabagia da; udal moduan gure esku dagoana egin, egin behar dogula pentsaia hartutako erabagia.

Gaiak aurrera urten eban EAJ-PNV taldeak alde eta Bilduk kontra emondako botoakaz.

**BEDIAKO EAJ-PNV UDAL TALDEA**

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu makinazko 15 lerro baino gehiago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu behar dira. Laburtu behar izan ezker, BEGITU eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: Zertu Kultur Elkarte. Herriko plaza, 24. 48.142 Artea edo [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com) helbidera.

## GEURE BERBATEGIAREN LEIHOTXUA

ANGEL LARREA ETA JUAN REKALDE

### Eztegu



Eztegu (estegúek, agoskatuta) dakargu orainoan, atal honetako ehungarren zenbakia ospatuteko. Gero eta gitxiago entzuten dan eztegua berbeak zera esan gura dau: ezkontza eguna edo ezkontzearen zeremonia. Gizonak emaztea edo andreak senarra bikotetzat hartzeako egiten dauen ospakizun zibila edota erlijiosoan erabilten bada be, beste bikote guztiakaz be erabili leiteke. Batuaz, eztei da. Eztegu berbearen berezitasuna, pluralez erabilten dala; esate baterako: "Neba-arreben ezteguetan mahai baten inguruan jarri eta neurri barik jan eta edan genduan!".

## ERETXIA

### Hutsunearen harrotasuna\*

**H**asarre ñagona. Hasarre eta erreminduta Gipuzkoako Patronaleko lenendakariaren adierazpenen ostean.

Pasau najonan hasarreak tristeza doiagaz bat egiten jonan sasoa. Poesia bihurtu zoan sentimentu hori:

*I*  
Gure herri industrial zulatu honen

*paparra kolpatu ta arrakalatuta utzi dit*

*Aita ta gizon-lagunari bizia xurgatu ostean*

*ondo zainduriko alaba gain-heziak langabeen linboan utzi dizkit*

*Eta inperioen hizkuntzak ikastearen bidaltzen ditut*

*espainoldunen aldera lehenengo*

*ingelestdunen herrialdeetara geroago*

*Zaintzaile, neskame, begirale eta partikular-emolerik titulatuena gure alabok.*

*Beteko ahal ditu arrakala ta zuloak zuon biziminak, ume!*

*Berdinduko ahal ditu maila ta amildegioak Gorbeiko haizeak.*

*II*  
Oraingo hau orduko hura bezalaxe da:

*Non dago Wally, ume? Eta denborarekin beti aurkitzen zenuen.*

*Non dago lana? Non balioa?*

*Non bizibidea? Non nire lekua?*

*Non dago eginbeharra?*

*Non dago lana? Non oreka? Non justizia? Non nire burujabetza?*

*Non dago eskubidea?*

*Non dago Wally, ume? Eta denborarekin beti aurkitzen zenuen.*

Baina orain Pello Gibelalderen deklarazioak entzunda ez ñagona poesiatarako:

"Ez jauna, gurasook ez gara errudun, dakigun ondoen eta arduratsu hezi doguz seme-alabak.

Ez jauna, gu ez, gure egoera ekonomikoa hainbestearino hon-



### MAITE ARTABE URKIRI

Alaba gazte biren ama

datu dozuenok zarie arduradun.

Ez jauna, ez gagoz pozik joan diralako, sekula burutik be ez jakun pasauko-eta emigranteen guraso izaterik.

Ez jauna, ez dira danak mutilak alde egin dabenak, kanpora joandako alaben gurasoak be bagara.

Ez jauna, ez gara biktima sentiduko halanda be; oin, zure deklarazio horren ostean, harrotasuna gehituko deusagu hasarreak, hutsunearen harrotasuna. Seme-alaba balianteen guraso gara-eta.

Eta izan errespetoa gure hutsune, tristeza eta hasarreagaz. Itxi dueloa bakean pasetan; eta ez izan dudarik, inoiz seme-alaba emigrante euskaldunen amen alkarterik sortzean bada, agertuko da zerrendan nire izena be".

...Eta egingo jonagu oiher Argentinakoen modura: itzuli eiguzuez gure seme-alabak. Hutsunearen hasarre eta harrotasuna dignidade eta alkartasunagaz ordeztuko joguzana orduan.

*\*Judith Vizcarraren proiektu baten izenburua.*

## LUMATUTEN



## AMAIA ESPINOSA

## Bataz bestekoa

**B**arriro be, andereño Nekanerren klaseko emoi-tzak neurtuteko sasoia etorri da. Klasean, danerik dago; ikasle onak, txarrak, bikainak, eta erdipurdikoak, baina ha-ta guzti be andereñoa pozik dago ze bataz bestekoa ondo batera ailegau da. Danak pozik ba, ez jauna! Mikel eta Iratiren etxean ez dagoz pozik, pentsau be ez! Han ez nahikoetatik ez dabe urten. Andereñoak trankil egoteko, ondo baten klasekoak dirala esan deutse, eta ia hurrengoan... Baina eurek zoritxarreko ez nahikoen ondorioakaz burrukatu behar.

Ba, Arratian be, azken hauteskundeak eta gero, Nekanerren klasekoa pasau da, eta batzuk, hasarratuta dabiz. Errazioa? Mankomunidadea. Ez ei dalako, euren ustez, Arratiaren espilu. Horregaitik, gauzak bere -edo euren- onera ekarteko, oin arte balekoa izan danari aldaketa sasoia etorri jakola esaten dabiz. Txarto aituren bat

dalakoan nago, ze arratiar gehienok aspalditik dakigu Mankomunidadea ez dana hamargarren udala. Mankomunidadea, bederati udalek sortutako erakundea da, herrien ordezkari zuzena errespetetan dauana, eta alkarrerik lagunduz hainbat zerbitzu eta ekimen amankomunean eskeintzen deuskuna. Eta hortik behar bada errakuntzea.

Halanda ze, egia bada Arratia mailan, arima bakarra lez hartuta, EH Bilduk EAJk baino boto batzuk gehiago daukazala, neurri bereko egia da herri bakotxaren ordezkari jagokonez, EAJ EH Bildu baino gorago dagoala. Ez dagiguzan ba gauzak nahastu. Alkatea eukiteak ez dakar alderdi jakin battegazko herriaren borondate zuzena ordezkateak, ze alkatea izateko, eta zilegitasun osoz, irabazteak besteko inportantziarik dauka lagunak edo arerioak izateak, edota ordezkarien artean tratatu bitxiak bordatzen jakiteak. Arratian be orduan, Nekanerren klasean moduan, normala da batzuk pozik ez egotea, ze gurean be, bataz bestekoa ondo biribila izan arren, ez nahikoak be hor dagoz.

## ZERTZEAN



## ALVARO RABELLI

## Kaminoa

**F**ernando aspaldian inor pasetan ez zan kamino baten ondoan bizi zan, palmondo hosto handiak estaltzen eben adobezko etxetu xume baten. Kaminoa udabarriko euriteagaz lupezen zan lur pista baino ez zan, orduan ondo-ondoan doan errezagaz bat egiten eban. Kamino horren albo bietan Fernandoren zelaia zabaltzen zirán. Behin, halako-baten, kaminotik etorran gupil bat ikusi eban Fernandok. Jirabiran etorran, arin, Fernandoren etxerantza, artez-artez. Autoaren arrastorik ez egoan, baina gupil ha nonondik etorran. Pixkanaka, etxerantza etorralla, gupilak abiadura galdu eban eta albo batera jausi zan, kaminoaren erdian bertan, ziplo, nonor hil izan balitz lez. Handik hilabete batzuetara Fernandok topau eban gupil haren jatorria, auto bat uretara jausia ikusi eitekean errekan lehortea heldu zanean. Euriteak itzulita, auto ha barriro desagertu zan ur azpian. Egun haretan Fernandok zapata pare bitzu egin eban gupilaren gomagaz. Holan, denpora luzea joan zan inor kaminotik pasa barik. Baina, egun batez, bat-batean auto ilara ikaragarria hasi zan Fernandoren etxetuaren aurretik pasetan. Hegoalderantza joiazan danak, kolore eta marka guztietakoak, handiak eta txikiak. Fernandok, miratuta, ez eban si-

nistuten hainbeste auto egon eitekeanik be. Holan joan zirán egun batzuk, eten barik autoak pasetan, egunez eta gaubez, lur-pista haren hautsa harrotuz. Lantzean behin, Fernandoren etxeraino ailegetan zan auto horreetako baten pusketan, tapakubosen bat, fokuren bat... Fernandok atoan lekua egiten eutsen etxeko baxeraren artean. Derrepentean, autoak pasetan amaitu zan, isiltasuna bihurtu zan kamino bakarti hartara, ez, ordea, zerura, ze ortzemugan hodei handi baten zirriborroak igarri eitekezan. Horretan, Fernandok oihaneko bihurtetik azken auto bat etorralla begiztau eban. Amasestuka etorran, keadar handia eriola. Ford zahar bat zan. Fernandoren etxetuaren parera helduta, autoa gelditu eta gazte bat jaitsi zan ordurako gogotik egiten eban euripean. Gazteak halango larridura ekarran arpegian.

-Baina, zer egiten dozu hemen? Munduko Hirugarren Gerra hasi da, gerra nuklearra, danok hegoalderuntza joan behar dogu, salbauko badogu!

Hori esanda, gazteak jarraitu eban aurrera. Fernando pentsakor gelditu zan intera batez, baina ateri eban ezkerreko, astoa lurra goldatuten atara eban. Bitartean bere buruari preguntetan eutsan:

-Zeri eritxiko deutsoe "mundua"?

\* Zertzean atalean argitaratuko doguzan testuak, literarioak edota sormenekoak diranez, heltzean diran moduan argitaratuko doguz eta ez doguz gure euskera eremuan ipiniko.

Tarte hau zeuretzako be dago zabalik, holango sormen-lanak BEGITU argitaratu gura izan ezkerre, eskatu egiguzuz argitaratzeko baldintzak [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com) helbidean.

## BEGI TXINDORRA

**Z**emendiaren bataz udako eguna emon arren, gaztaina eta perretxiko sasoia da honezkero, eta laster etorriko dira hotzak. Aitor Arnaizek bialdutako argazkian umeak egiten dauan lez, kalean irakurteko egun aproposak salbuespena izango dira orduan. Eta ez dogu barriro BEGITU aire librean irakurriko, hile batzuk pasau arte.

Sasoian sasoikoa, eta laster etxe barruan irakurteko sasoia etorriko da. Baina ez da gozoa, kanpoan hotz egiten dauanean, sofán jarri eta beheko suaren ondoan arrastia irakurten emotea? Neguan be hor egongo da BEGITU, hamabostean behin zuokaz, Arratian gertatutakoa jaso eta konpartiduteko.

Gaztain sasoia, irakurteko sasoia be bada eta.



**Gorosti** Lorategien Diseinu eta Gauzatzea  
Ureztaketa instalazioa  
Mantenua eta Inausketa  
LORAZAINTZA  
Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea  
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88  
[gorosti@gorostiscl.com](mailto:gorosti@gorostiscl.com)

Zugaitik BEGITUten dogu  
A.P.I. 495  
[www.inmobiliarialarrea.com](http://www.inmobiliarialarrea.com)  
Lehendakari Agirre, 8 behea  
48140 Igorre  
Tfnoa: 94 631 80 04

24h  
EGUNEKO OGIA  
vending pan  
IGORRE  
Lehendakari Agirre

## ARTEA

# Aurrekontuak egiteko lehenengo auzo batzarrak



Panela aurrekontu parte-hartzaileen kartelagaz.

### Erredakzioa

Hogetabat lagunek hartu eben parte urri bigarrenaren 22an, aurrekontuetarako lehenengo auzo

batzarrean. Lehenengo aldia da metodologia parte-hartzaile hau erabilten dala Artean, eta Igor Etxanizek (EH Bildu) Arteako alkateak ondo baloratu dau jentearen parte-

## ARRATIA

# Arratiako Altxorra jokoaren aurkezpena egingo dabe Zeanurin hilaren 11n

### Jon Urutxurtu

Zemendiaren 11n eguaztenez, arrastiko 19:00etan aurkeztuko da Arratiako Altxorra jokoak Zeanuriko udaletxeko batzar aretoan.

Jolas hau ez da antzara joko, baina badauka antzik; ez da tribiala be, baina badauka antzik. Bertokoa izan ala kanpotik etorri, umea izan edo jubilauta egon, Arratia barru-barrutik ezetuteko aukerea emoten dau: mendiak, herriak, ermitak, musikea, kirola, literatura erakusten eta irakasten dauz Arratiako Altxorra deritxan jolas honek.

Lehenengo edizioa 600 jokokoa izango da eta joko bakoitzean 300 galdera-erantzunetik gora batzean dira; dadoakaz jolasten da eta Arratiako 12 txartelak eskuratu behar dira jokoa irabazteko.

Egileak asko izan dira, euren artean aitamen berezia merezi dabe Zeanuriko gazte talde batek eta Manu Etxebarria zehariorak. Diseinu lanak Javier Lacalle Laka artista zornotzarrak egin ditu.

Arratiako Altxoraren edizioa eta zabalkundea posible izan da honako erakunde laguntzari esker: Arratiako Udalen Mankomunidadea,



Jokoaren azala.

eta Areatza, Artea, Bedia, Dima, Lemoa eta Zeanuriko Udalak.

Zemendiaren 11n, Zeanurin egingo dan aurkezpen ekitaldian jokoaren nondik norakoak plazaratzeaz gainera, Arratian bizi diran altorren adierazpen desbardinak ikusteko eta gozatzeko aukerea be izango da: bertsoa, txistua, ipuina...

Jokoa erakunde laguntzaileen bitartez eta Arratiako parrokitan zabalduko da. Herrietako dendetan be erosteko aukerea izango da.

hartzea eta egindako ekarpenak. Auzo batzarretatik eta Ogasun Batzordetik pasau ostean, "Arteaztarron Biltzarra" egingo dabe aurrekontuen zirriborroa aurkezteko. Aurrekontuak abenduaren 15ean bozkatuko dabez Udalbatzan.

Orain arte, auzo batzar bi egin dira; bata, urri bigarrenaren 22an eta bestea 29an. Hirugarrena zemendiaren 5ean egingo da. Batzarrotan, Udalak 2016. urterako diru sarreren, ohiko gastuen eta inbersinoen estimazioa azalduten dauz, miloe bat euro inguru, eta herritarren proposamen eta eretiak jasoten ditu, ahal izan ezker aurrekontuetan sartzeako.

Ondoren, Ogasun Batzordetik pasauko dira kontuak eta hilaren 26an, "Arteaztarron biltzarra", hau da herri asanblada orokorra, egingo da. Biltzarrean, auzo batzarreko aktak emongo dira jakitera eta Udalak 2016rako aurrekontuen proposamena azalduko dau.

Barriro Ogasun Batzordetik pasau ostean, aurrekontuak abenduaren 15eko Udalbatzan bozkatuko dira.

## IGORRE

# Aurrekontu batzarrak oraingo hilean izango dira

### Erredakzioa

2016ko aurrekontuak egiteko, auzune eta arlo batzarrak zemendiaren lehenengo hamabostaldian zehar antolatu ditu Igorreko Udalak.

Hilaren 3an, Urkizu-Garakoi auzunekoak, 19:30ean, txokoan, euren auzuneak daukazan preminak aurkezteko aukerea izango dabe. Hurrengo egunean, gauza bera egingo dabe San Juan eta San Kristobaleko biztanleak auzoko txokoetan, 18:00etan eta 19:30ean, hurrengo hurrengo.

Zemendiaren 5ean, gazteen txandea izango da eta horretarako udal ordezkariak gaztetxean batuko dira eurekarrak arrastiko seiretan. Egun eta leku berean, 19:30ean, Garbe-Mikele auzunekoak euren preminak azaldu eta datorren urteko aurrekontuetarako ekarpenak egingo dabez.

Gezala-Basauntzeko biztanleak barriz, zemendiaren 10ean, udal txandean dagoz deituta 18:00etan. Hurrengo egunean arlo batzar bi egingo dira, jubiladuakaz eta Kirola eta Kultur alkartetakoak. Lehenengo batzarra, arrastiko seiretan izango da Jubiladuenan eta bigarrena 19:30ean Kultur Etxean.

## LEMOA

# Udagoieneko baserriko produktuen azokea Elizondon hilaren 8an



Kartela.

### Erredakzioa

Lemoako Udalak antolatuta Gorbeialde Landa Garapenerako Alkartearen laguntzaz, XVI. Nekazaritzako Elikagaien Azokea izango da zemendiaren 8an, Lemoako Elizondo auzunean, futbol zelaiaren ondoan. Bertan, batez be, Gorbeialdeko ekoizleak hoge postutan, sasoi honetako baserriko produkturik onenak ipiniko ditue salgai goizeko 10:00etatik 15:00ak arte. Taloa dastatzeko txosnea be egongo da bertan.

Musikea Arratia Musika Eskolako trikitilariak eta Lemoako Ko-

ralak ipiniko dabe. Ordu batetatik aurrera, Atxetako plaza eta txoko desbardinetan, kantu-kalejiran ibiliko dira trikitilariak eta Korala.

### Bigarren eskuko azokea hilaren 21ean

Beste alde batetik, jentek jadanik erabilten ez dituan gauzen bizitza luzatuteko asmoz, Lemoako Udalak bigarren eskuko azokea antolatu dau zemendiaren 21erako. Azoka hau be Elizondon izango da 11:00etatik 14:00ak arte. Bertan gauzak saltzeako izena emon behar da Udaleko Kultura Zerbitzuan hilaren 2tik 13ra arte.

**Bizkaifisios SLk**  
bi zentro ditu  
**Fisioterapia Zentroa Igorre**  
Ellexalde 4  
Telefonoa 94 631 55 08

**Andra Mari Klinikea**  
Fisioterapia Zentroa  
Pontzi Zabala 1, Galdakao  
Tel/faxa 94 457 23 64

**ASESORIA Gorbeialde**  
Juridikoa · Fiskala · Lanekoa · Kontularitza  
Askatasun 28, 1B · 48143 Areatza  
Tfnoa. 94 673 92 93 Faxa. 94 673 92 82  
E-posta: gorbeialde@gorbeialde.com

**agoa** Ortodontzia  
Inplanteak  
Estetika  
hagin klinika

Marina Urigoitia Aldekoa  
Odonologia

Bidebarri 1. behe  
48140 Igorre-Bikala  
T. 94 631 50 39  
Kalejara, Zabalde 101  
R.P.S. 21/06

## ARANTZAZU

Sanmartinetako  
V. bertso-afaria

## Erredakzioa

Arantzazuko EH Bilduk, sanmartinetako bertso-afaria antolatu dau bosgarren urtez jarraian, zemendiaren 13rako, Arantzazuko Montero tabernan. Igazko moduan, aurtan be Arkaitz Estiballes eta Fredi Paia izango dira bertsolariak.

Afairako tiketak, Arantzazun Montero tabernan eta Igorren Gau Loran, AZ Rugby tabernan eta Herriko Tabernan erosi daitezke.



## DIMA

Kontribuzinoa  
ordaintzeko  
diru laguntzak

## Erredakzioa

Dimako Udalak kontribuzinoa edo Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga (OHZ) ordaintzeko diru laguntza dauka jagokien herri-tarrai lagundu ahal izateko. Diru laguntza horretaz baliatu ahal izateko baldintzak eta gainerako informazioa udaletxean dago eskuragarri.



## ZEANURI

Jente aurrean berba egiteko  
tailerra eta andren memoria

## Erredakzioa

Zeanuriko Mazala Andra Taldeak urtea amaitu arte jente aurrean berba egiteko tailerra, euskerearen inguruko berbaldia eta Intxorta 1937 memoria alkarteak egindako dokumental baten proiektzioa antolatu ditu. Horrezaz gainera, Zeanuriko andren memoria galdu ez daiten, hile honeetan herriko andrakaz grabazioak egiteko proiektua dauka Mazalak.

Jente aurrean berba egiteko tailerrak bost saio izango ditu Zeanuriko Kultur Etxean Esti Redondo kazetari eta hezitzailearen eskutik. Zemendiaren 5ean hasiko da tailerra eta zemendiko

eguenetan eta abenduaren 2an, eguaztenez, izango dira saiook, arrastiko seiretatik zortziretara.

## Nire Aitaren Etxea?

Euskerearen Egunaren Inguruan, Jone Miren Hernandez EHuko Gizarte Antropologia Irakasleak "Aitarena? Amarena? Zeinena da euskararen etxea?" tituluko berbaldia egingo dau Zeanurin.

Abenduaren 17an, barriz, Intxorta 1937 alkarteak egindako Arrasate 1936: Emakumea, gerra eta errepresioa izeneko dokumentala proiektuak dabe Zeanuriko Kultur Etxean eta ondoren, Intxorta 1937ko Julia Monge-gaz berba egiteko aukerea egongo da.

## ARTEA

Eusebia Iturbe arteztarrak  
100 urte bete ditu

## Erredakzioa

Eusebia Iturbe Zubero Arteakoak, 100 urte bete eta Udalak, Fredi Paia eta Jubiladuen alkartearen laguntzeagaz, omenalditxo egin eutsan urri bigarrenaren 29an. Eusebia Arteako Iberre baserrikoa da, baina Lemoan bizi da atzen 26 urteotan bere alaba Begoña Zuloagaz. "Batzuek dinoe beharrak hil egiten dauala personea, baina ez da egia, ze baten batek behar egin badau, gure amak egin dau baserrian" dino Begoña alabeak.

Familia eta lagun pilo hurreratu

zan zoriontzeko ekitaldira.

Ekitaldia hasteko, Fredi Paiaren bibolinaren soinuakaz, aurrekua jantzau eban aurrekulariak eta Eusebiari egindako bertsoak bota ebazan Paiak. Ondoren, Jubiladuen alkarteak, Bizkaiko Foru Aldundiak eta Arteako Udalak opariak egin eutsien omenduari. Opari guztiak ilusinoz hartu bae-bazan be, Udalak oparitutako tokillea asko gustau jakon Eusebiari. Amaitzeko, hurreratutako guztiak "Zorionak zuri" kantau eta kopautxo egon zan arteztarraren 100 urteak ospatuteko.



## ARRATIA



## Autobusa Lemoan.

Enpresetan bardintasuna  
landuko dau Mankomunidadeak

## Erredakzioa

Arratiako Udalen Mankomunidadeak, Berdintasunerako Gunearen barruan, "Enpresetan ere berdintasuna lantzen" izeneko aurkezpena antolatu dau datorren zemendiaren 11n, eguaztenez, 10:00etatik 12:00etara, AUMko egoitzan. Bertan, Arratiako enpresa eta merkatariai aurkeztu gura deutsee zer eta zelan landu daitekean andren eta gizonen bardintasuna euren arloan, eta horretarako dagozan diru-laguntzak, laguntza teknikoak, kanpainak, eta abar. Aurkezpena praktikoa izango da, eta alkarregaz beharreak hasteko lehen pausua.

Hauxe izango da aurkezpenaren gidoia: andren eta gizonen arteko aukera bardintasuna zelan egin enpresearen oinarritzko printzipio, bardintasuna enpresa politikearen

helburuetan zelan sartu, batez be, giza baliabideen kudeaketan; eta aitatutako guztia gauzatzeko dagozan baliabideak aurkeztea.

## Hezkidetzeta landuteko autobusa Arratian izan da

Urri bigarrenaren 19an, 20an eta 21ean, Berdintasunerako Gunearen autobusa Arratian ibili zan; hain zuzen be, Areatzako Eskolan, Igorreko Institutuan eta Lemoako Eskolan.

Bertan, ikasleak, irakasleak eta gurusoak hezkidetzeari buruzko prestakuntzea izan eben, aukera bardintasuna, tratu bardina eta aniztasuna landuten jarraituteko.

Holan, Arratiako Udalen Mankomunidadeko Bardintasun Zerbitzuaren ekimenez eta Bardintasun Gunearen bitartez, hezkidetzeta beste modu baten landuteko aukerea izan eben hezkuntza zentroetan.

## IGORRE

Axular Libre  
Eguna

## Erredakzioa

Zemendiaren 7rako egun osoko jaia prestatu dabe Igorreko Axular Herriko Tabernan. Libre mobimentuak, Herriko Tabernak defendatu gura ditu, 35/02 auziaren epaiak agindutako moduan Herriko Tabernak ez zarratuteko.

Axular Libre Egunak jaia eta aldarrikapena buztartu gura dauz eta jaia jatorduen inguruan eratuko dabe. Holan, 10:30ean gosaria egongo da pintxo eta guzti. Gero, Berbalapikoa tertulia eta ondoren Libre olgetan izenpeko poteoa herri-ritik. 14:30ean "bASKERie", arrastian 17:00etan Mus Txapelketea eta gaueko 21:00etan kontzertua, Jakemate taldeagaz.

Bazkarirako tiketak Axular Herriko Tabernan bertan erosi daitezke 10 euroan, langabeak 7 euroan.

**ZEKUTZE**  
JATETXEA

Sabino Arana, 24  
48140 IGORRE - Bizkaia  
Tel.: 94 631 52 83  
zekutzejateatxear@bnet.com

**Dia %**

**PEDRO**  
AUTOSERBITZU

Sabino Arana, 35 48.140 Igorre  
Tel. 94 631 15 26

**GARANTXE**  
Autoeskola

TEORIA EUSKARAZ  
ZEIN ERDARAZ

Balioak: A1, A, B1, B

Lehendakari Agirre 31  
Telefono: 94 631 71 32  
48140 IGORRE (Bizkaia)  
garantxe@euskalnet.net

**Beer & Edariak s.l.**

HEINEKEN SOLARES

Polig. Mendaketa, n.º 3. 48530 LEMOIA, Bizkaia  
Tel: 000 481 839 000 000 717

Igorren  
**ARKITEKTOA**  
Aitzol Aurrekoetxea Pujana

Lehendakari Agirre 23, behea  
aitzol@coavn.org - 675 705 111

## ARRATIA

# Igorren estrenau da *Dena ez da futbola* film laburra



Venezuelako konsula argazkiaren erdian aurkezpen egunean.

### Erredakzioa

Venezuela eta Euskal Herriko umeak egindako *Dena ez da futbola* film laburraren lehenengo aurkezpena Igorren egin zan, urri bigarrenaren 21ean. Aurkezpen ekitaldian, Koldo Zelestino zuzendarietako batek, Beinat Anzola Igorreko alkateak, Itsaso Bengoetxea kultura zinegotziak eta Yolanda Rojas Venezuelako konsulak hartu eben berbea filma aurkeztuteko. Bigarren aurkezpena Coro-n (Venezuela) izango da. Venezuelako zine guztietan proiektuak da *Dena*

*ez da futbolaren* bersino laburrago bat, hiru minutukoa. Igorren estrenau zanak, barriz, 17 minutuko iraupena dauka. Kurkuluxeta alkarteak ekoiztu dau filma eta unidate didaktikoa be atera dau pelikulan sustatzen diran baloreak eskolan landuteko.

Filmaren zati bat Igorren grabau zan eta hainbat aktore arratiarrak dira. Horregaitik, Igorreko alkateak eskerrak emon eutsezan Rita Naveira eta Koldo Zelestino zuzendariak Igorreko izena munduan zabaltzearen. Venezuelako jentea eta hemengoaren arteko loturea azpimarratu eban kultura

zinegotziak, "oinarrian ez gara hain diferenteak" esan eban Bengoetxeak. Ados egon zan Venezuelako konsula: "zuen eta gure artean ez dago apenas diferentziarik".

### Bardintasuna eta justizia

Filmak hiru helburu ditu, artistikoa, pedagogikoa eta kulturala, baina pedagogikoa nabarmentzen da. Leku desbardineta jentek amets eta arazo antzekoak dituala erakustez gainera, justizia eta genero bardintasuna landuten dau euskal-venezuelar koproduzinoak.

Genero bardintasuna da pelikulearen ildo nagusietako bat eta sakon landuten da unidate didaktikoa. Hori dala eta, galdera honeek egiten deutse ikasleak: "Neska eta mutilak bardinak gara kiroletan? Aukera bardinak daukaguz? Komunikabideak bardin tratetan gaitue? Publikoak bardin ikusten gaitu?". Bardintanun dekalogoia egitea be proposatzen da. Unidate didaktikoa generoari lotutako rolen gaineko hainbat ariketa dagoz eskolan egiteko.

Pelikulea hasi aurretik, datu batzuk emoten dira futbol izarren mundua eta umeen egoerea munduan alderatuz. Beste datu batzuen artean, egunero 18.000 ume gosez hilten dirala edo 30.000 ume ez dabela oinarriko heziketarik jasoten jakinarazoten da bertan, eta futbolarien soldata astronomikoen justizia kolokan ipinten da.

## AREATZA

# Areatzako andren memoria jasoten dauan dokumentala aurkeztuko dabe zemendiaren 6an

### Erredakzioa

Areatzako Emakume Foroak, urte biko lana egin ondoren, herriko andra guztien lana aitortu eta ikustarazotako gura dauan dokumentala aurkeztuko dau zemendiaren 6an, arrastiko 19:00etan, Udal Aretuan. Aurkezpen ekitaldian dokumentalean agertzen diran andrak egongo dira.

Dokumentala egiteko, Forokoak Areatzako 30 andra baino gehiago alkarrizketatu dabez edade eta ogibide desbardinetaoak. "Arlo asko landu dira, kultura eta musika esparruetan ibili diranak, kiroletan, nekazariak, fabriketan behar egin dabenak, ostalaritzan, enpresariak, akademikoak... eta artxibo historikoan be informazioa bilatu dogu" azaldu deutso BEGURI Sara Gutierrez Areatzako Emakume Forokoak. Grabatuko alkarizketa guztiak antolatuteko eta dokumentalaren montajea egiteko, ikus-entzunezkoetan eta genero gaietan aditua dan Zuberua Andresen laguntzea izan dabe.

### Errekonozimentua

Gure gizartean andren beharra baliobakotu eta ostendu egiten da. Dokumental honen helburua

Areatzako andren lanari behar dauan errekonozimentua emotea da. "Gure herrian eta orokorrean mundu osoan zehar, andrak egingako lana eta ekarpenak eremu publikoan zein pribaduan, isildu arazo egin dira. Dokumental honeguz gure herriko andrak egindako lana eta gizarteari emondako aberastasuna erakutsi gura izan dogu, eta aldi berean, lan hori baloratu merezidu dauan moduan" dinoe Forokoak. Dokumentalean herriko andra batzuk baino agertu ez arren, guztien lanaren errekonozimentua izan gura dau, "agertzen diranen bizi esperientziak besteen espilu diralako".



## ZEANURI

# Alberto Zuluaga: Sukaldaritzeari lotutako bizitzea

Ibilbide barri bat hasi dau Bacalao Zuluaga dendeagaz zeanuriztar sukaldariak.

### Jon Urutxurtu

Aspalditik Bizkaiko sukaldaritzearen ikur eta adierazgarri nagusienetakoa da. Hamalau urteagaz hasi eban bere sukaldari ibilbidea eta 1999. urtean Michelin izarra eskuratu eban Galdakaoko Aretxondo jatetxeko sukalde-arduradun lez.

Berrogeta bat urte daroaz lapiko eta zartaginen artean. Hamalau urteagaz atera zan Zeanuriko Jaurerri baserriatik, ofizioa ikasteko, eta bere lehen urratsak Deustuko Ikusgarri jatetxean emon ebazan. "Nire lehen eskolak jatetxe txikiak izan ziran, betiko sukaldaritzan oinarritzen ziranak" dino Albertok. Lau urtez egin eban behar Ikusgarri, sukaldari-mutil; beste urte bat emon eban ikasten Aretxabaletako Taberna Berrin, eta jarraian Bilboko Jado jatetxea zabaldu eban.

Soldadutza egin ostean, lehenengo Bermeoko Pili eta gero Bilboko Dindirri jatetxeak izan ziran bere lantegiak. Hemendik Ercilla Hotelera igaro zan, eta bertan lau urtetan Angel Lorente, bere maisu nagusienetako bateguz egin eban behar, arrainen sailaren arduradun.

Hurrengo lau urteetan Lope de Haro Hoteleko sukaldari nagusi izan zan. Hemendik Galdakaoko Aretxondo jatetxera egin eban saltoa eta bertan egoala, 1999. urtean, Michelin izarras saritu eben.

Urte horreetan guztietan zehar Albertok bere formakuntzea osotu eban egonaldi luzeak eginaz Frantziako hainbat jatetxe ospetsutan: Majestic-eko Hotel Relais de la Poste-n, edo Pariseko Hotel De Crillon-en, Hotel Ritz-en eta Carré des Feuillants jatetxean. "Nik gure betiko sukaldaritzea mirestu eta

maite izan dot. Nire oinarria euskal sukaldaritzaren tradizionala da, hainbat eta guzti be argi daukat beste sukaldaritzaren batzuk be ezetu egin behar dirala. Ofizioa behe-behetik ikasi neban, jatetxe txikietan, betiko jatetxeetan, sukaldari-mutil lanetan hasiz, baina gero Euskal Herriko zein estatu mailako zein atzerriko jatetxe handietatik igaro nintzan joera eta teknika barriak ikasteko".

### Raneretik Bacalao Zuluagara

2000. urtean Albertok goitik beharako norabide aldaketa emon eban bere ibilbide profesionalan, eta goi mailako sukaldaritzatik aldentzea ebatzi eban, bere eskarmentua eta jakitua Club Ranerora, prestatutakoan janari dendara, bideratzeko. Azken hamabost urteak bertan emon ostean, abuztuaren erdialdean Club Ranero dagoan kale berean,

hamarren bat metrora, Alameda San Mames kaleko 20. zenbakian, Bacalao Zuluaga prestatutakoan janari dendea zabaldu dau.

Bacalao Zuluagak Club Raneroren filosofia berberagaz jarraitzen dau: Islandiatik ekarritako bakailao gazitua saltzean dau, beratua zein era desbardineta prestatua, pil-pil erara, bizkaitar erara edo club Raneroren



Alberto Zuluaga.

ro erara; baina bakailaoaz gain, gure amamen hainbat plater be eskeintzen ditu: bakailaoko eta urdaiazpiko kroketak, perretxikoak, onddoak, barraskiloak bizkaitar erara, haragia eltzean, tripakiak, muturrak, txipiroiak... eta barazkiak ahaztu barik. "Gure platerak betiko sukaldaritzeari eta baserriko nahiz itsasoko produktuari deutsegun maitasunean eta errespetuan oinarritzen dira. Betiko sukaldaritzaren mireslea naz, sukaldaritzaren garbiaren aldekoa, espezia gitxi erabilten dituan sukaldaritzaren aldekoa. Gure dendan zera bilatzen dogu: gure produktua etxean prestatzen diran platerak daukien kalidade berberagaz bezeroen eskuetara heltzea. Gure dendan erosten diran janariak kalidadezko edozein jatetxetan aurki daitezkezan modukoak izan daitezala gura dogu".

Tradizioak eta dotoreziak, ezaugarri bi horreek bat egiten dabe Alberto Zuluagaren sukaldaritzan. Bacalao Zuluaga prestatutakoan janari dendek Zeanuritik abiatu, Bilboko Ercillan edo Pariseko Ritz-en eta Michelin izarra lortu eban Aretxondon hartutako eskarmentuan oinarritutako plater duinak eta dasta onekoak eskeintzen ditu.

## DIMETAL FEST

# Herri txikian, rock gogorra

Herrialde nordikoetan sano gustukoa dabe heavy metal musikea eta herri txiki askotan jaialdiak antolatuten dabez. Hango moduan, Dimako lau lagunek, heavy metal jaialdia eratu dabe zemendiaren 14rako. Nik Khaos, Unholy Covers, Childrain, The Wizards, Celtiberian eta Sepultado taldeak eskeiniko dabez kontzertuak gaubean. Egunean zehar, barriz, rock gogorragaz lotutako berbaldiak, herri bazkariak eta bertso saioak girotuko dabe heavy metalari eskeinitako eguna.



Zaloea Eraña, Ruben Socorro eta Itsaso Petralanda.

Itsaso Petralanda, Ruben Socorro, Zaloea Eraña eta Juan Mari Aurrenetxe "Txirpu" dira Dimetaleroak; hau da, metal estiloko musikea gustau eta jaialdia antolatu daben dimoztarrak. "Niri gehien gustetan jatan jaialdia Wacken-en (Alemania) egiten da. Herria sustatzeko ekitaldi xume moduan sortu zan eta mundu mailan erreferente bihurtu da" dino Itsaso Petralandak. Abiapuntu eta helburu bardiakaz, maiatzean batzean hasi

ziran jaialdia prestatzeko.

Euskal Herrian punk musikea rock gogorra baino ezagunagoa da, eta Dima ez da salbuespena. Izan be, Nekazalpunk jaialdia be egiten da bertan. Herrian heavy metal musikeari lekutxo bat egiteko eta jentearen artean zabaltzeko helburuagaz, jaialdia prestatzeari ekin eutsien eta hilaren 14an izango da lehenengo edizinoa. Izan be, urtero egiteko asmoa daukie antolatzaileak. Diru

gitxi baina jente askoren laguntzeagaz ipini dabe martxan jaialdia. "Adiskidetasuna eta alkartasuna izan dira gakoa" dinoe. Dirua atearateko, errifak eta kamisetak ipini ditue salgai tabernetan.

## Euskal trooper

Dimetal Fest-eko kartelean, Iron Maiden taldearen *The Trooper* (soldadua) diskoaren azaleko irudia agertzen da. Irudia mundu guztiak heavy musikeagaz lotzean dau atoa eta horregaitik aukeratu dabe hau Dimako jaialdirako. Eta "apur bat euskalduntzeko" txapela eta ikurriña ipini deusie Iron Maiden-en soldaduari.

Eguna mahai-inguru bategaz hasiko da. Desagertutako Idi Bihotz taldeko Gorka Bizarrek, Dani Alvarez EITBko kazetariak eta Jervo Jevardo Reno Renardo taldeko abeslariak, heavy metal musikea zelan sortu zan kontau eta musika honegaz lotutako tabuen gainean eztabaidatuko dabe.

Kontzertuak zortziretatik aurrera izango dira frontoi txikian eta gaztetxean. Sei taldek joko dabe eta danak rock gogorra jo arren,



estilo desbardinak ditue. Rock gogorrena Gasteizko Childrain taldeak egiten dau; Ciudad Real-eko Celtiberian taldeak, barriz, folk metala. Celtiberian-ekoak bibolina eta gaita jotzen dabe, rock gogorra folkagaz nahastuz. The Wizards Bilboko taldeak heavy klasikoa egiten dau, 70. hamarkadako estilokoa; Nik Khaos Dimakoak, barriz, new metal edo "metal alternatiboa" estilokoa. Bermeoko Unholy Covers-ek eta Mirandako Sepultadok bersinoak egiten dabez. Unholy Covers-ek heavy metal klasikoko bersinoak eta Sepultadok, Sepultura trash metal taldeari tributoa egiten deutso.

Herriko ostalaritza eta herriko jentea erakarteko helburuagaz, poteoak eta herri bazkaria egongo dira eta bazkalostean, Arkaitz Estiballesek eta Fredi Paiak bertso-saioa egingo dabe. Gaia librea izan arren, bertsolarietzako rock

musikea inspirazino iturri izango da, duda barik.

## Heldu eta gazteen musikea

Punk musikea 80ko hamarkadan jaio zan eta sano zabaldua dago egun; heavy metala, barriz, zaharragoa izan arren, 60ko hamarkadaren amaieran sortu zan-eta, Euskal Herrian ez da izan gehiengoaren aukerea Ruben Socorroren arabera. "Gipuzkoan apur bat hobeto egon da heavy-a. Han sortu ziran lehenengo euskal heavy taldeak", dino. Lehenengo haren artean, Su ta Gar aitatu behar da, Euskal Herriko mugak gainditu eta ondino bizirik dagoan heavy metal taldea da eta.

Dana dala, zailtasunak izan arren, rock gogorra ez da inoz hil Dimetaleroen ustez. Akaso, urte batzuetan isilago egon da, 2.000ko lehenengo hamarkadan, hain zuzen; baina 2011n eta 2012an indarra hartzean hasi zan barriro.



# ALKIZABAL

www.alkizabal.net  
alkizabal@alkizabal.net

Zabalik 07:00 - 19:00

## Eraikuntzarako makineriaren salmenta eta alokairua

**BOLUNBURU POLIGONOA**  
Amorebieta-Lemoa bidea  
Tel. 94 631 44 06. Faxe. 94 631 20 26  
48330 Lemoa (Bizkaia)



**Banatzale ofiziala**

















- Zuk behar duzuna daukagu, galdetu konpromiso gabe.
- Garraio zerbitzua.



# XX. mendea Igorren, protagonisten bizipenak erakusketa baten

Zemendiaren 6tik 26ra, Igorreko Kultur Etxean, Igorreko XX. mendeko memoria jasoten dauan erakusketea egongo da. Udala 2010ean Igorreko historia igorreztarren agoetatik jasoten hasi zan memoriaren banku bat egiteko. Mende hasikerea, gerra denporea, gerraostea eta industrializazioaren gaineko hogeta hamabi testigantza jaso eta ikus-entzunezko baten eta orden kronologikoan ordenau dabez kontaktok. Holan, Igorreko historia XX. mendean kontetan dauan narrazioa sortu da.

## Erredakzioa

Kontakizun hori jasoten dauan bideoa ikusgai egongo da erakusketan. Ondoan, denpora lerro baten, gertaera historikoak kokatuko dira eta horreen gaineko testigantzen bat dagoanean, bideoaren ze minututan dagoan agertuko da, bertara zuzenean jo ahal izateko. Memoriaren bankuak batu dituan argazkiak be egongo dira erakusketan. Hamaika panel izango dira eta bakotxean sei edo zazpi argazki dagoz.

## Memoriaren bankua

2010ean, Igorreko Udala memoria berreskuratzeko beharrean hasi zan. Soraya Lizundia orduko kultura zinegotzia, Angel Larrea historialariagaz ipini zan kontaktuan proiektua aurrera atera ahal izateko. Helburua, herriko historia igorreztarren agotik ezetutea eta bizi izandako oroitzapenak batzea zan; gerra denporea, gerraostea eta industrializazioa aztertuz.

Hori dala eta, memoriaren bankuan lan egiteko bekea eta lantaldea sortu ziran. Angel Larrea zan taldeko koordinatzailea eta Aritz Arrizabalaga, Ainara Pujana eta Ibai Pujana taldekideak. "Lehenengotik errolda ikusi eta erroldan garai haretan bizi eta ondino bizirik egozan igorreztarren zerrendea egin eben, gero industrializazio sasoian etorritakoen lagina eta ondoren alkarrizketak egin eutseezan banan-banan" azaldu deutso BEGITURI Itsaso Ben-

goetxea kultura zinegotziak.

Alkarrizketari ekin aurretik, taldekideak ikerketa bat egin eben historiako tarte horretako ezagutzak handituteko, alkarrizketatutai zer galdetu jakin eta zer eta noz pasau zan, gero kontakizuna jagokon momentu historikoan kokatuteko. Horregaz guztiagaz batera dokumentu grafikoak batu ebezan. Familia batek antxinako argazkiak euki ezker, batu egiten ziran bankuan. Azkenik, alkarrizketak historikoki ordenau, grabau eta editau egin ebezan. "Alkarrizketa horreek lau zatitan banandu leitezke. Lehenengo zatian mende hasikerea zelau bizi izan zan Igorren kontetan da; gero, gerra denporea; gerraostea eta industrializazioa. Industrializazioan zeintzuk ziran sortu ziran enpresak, Undurragako presea, jentea etorri zana beharrera kanpotik hona eta abar" kontetan dala dino Bengoetxeak. Eta material horregaz lau orduko ikus-entzunezkoa egin dabe.

Memoriaren bankua martxan ipini zan sasoi berean, beste ikerketa bat be ipini eban martxan Udalak Timoteo Atutxak kartzelatik idatzitako gutunen inguruan. Oiane Valerok eta Txema Uriartek egin eben ikerketa ha. Ikerketatik liburu bat sortu zan, igaz aurkeztu zana.

## Bertoko gertaera ezezagunak

Zemendiaren 6an inaugurauko da erakusketea arrastiko zazpiretan Kultur Etxean. Inaugurazino ekitaldian, egileakaz batera, euren historia kon-

tau dabenak egongo dira.

Memoriaren bankuaren funzioa informazioa ez galdutea da, errekopilazino lan hori dinamikoa izatea eta eskura eukitea, eta baita, informazio iturri bat izatea ikerketetarako-eta.

Askotan herritarrak ez dakie herrian bertan gertatutakoa; batez be gazteenak. Nagusiak euren memorian gordeta eukiezan gauza asko atera dira argitara holan. Askorentzat sorpresea izan da jakitea Otxandioagaz batera Igorre be bonbardeau ebela edo birritan bonbardeau ebela edo-eta Igorren be biktimak egon zirala, berbarako.

Erakusketan, memoriaren bankuan egindako errekopilazino lanaren emoitza ikusteko aukerea dago. Baina lana ez da amaitu. Izan be, bankua elikatzen jarraitu gura dau Udalak. "Ez da puntu finala, ikerketa bat izan da, bankua ipini da martxan eta

Memoriaren bankuaren funzioetako bat zan informazioa ez galdutea, baita lan hori dinamikoa izatea eta eskura eukitea. Eta informazio iturri bat izatea ikerketetarako-eta

**Memoriaren Bankua**

Igorreko historia XX. mendean.  
Igorreztarren ahotik.  
*La historia de Igorre en el siglo XX contada por sus protagonistas*

**Erakusketa/exposición**  
**2015/11/06 - 2015/11/26**

asmoa da horregaz jarraitutea. Eta historia horretan falta dira XX.

mendeko azken 20 urteak" dino zinegotziak.

**Okindegia**  
+ Ke... PAN  
Etxean bertan egindako pastelak

**IGORRE**  
Lehendakari Agirre 11  
94 656 65 52  
Sabino Arana 35  
94 657 3898  
**AREATZA**  
Goiko kalea 8  
94 608 90 47

**begitu**  
arratiako zinegotzia

**Kili-Kili** Umeen denda

**Umeen denda**  
94 673 63 51  
Agirre Lehendakaria 10  
Igorre  
kilkiligorre@gmail.com

**arratiako instalazioak s.l.**  
Berokuntza - Iturgintza - Gasa  
Aireztatzeko sistemak  
Aire zurgatze zentralizatua  
Suteak kontrolatzeko zerbitzuak eta mantentze lanak

Igorreko Industrialdea  
Fab. D7  
Tel. Fax. 94 673 62 76  
Tel. 619 736 516  
48140 Igorre Bizkaia

**FISIK**  
FISIOTERAPIA ETA  
ERREHABILITAZIO ZENTROA  
Tel. 94 685 11 16  
LEHENDAKARI AGIRRE, 17 - IGORRE

**Olaxte**  
Graduazinoak  
Ikusmen terapia  
Ikusmen gubitua  
Begiko tentsioa  
Lentillen adaptazioa  
Kiroletarako betaurrekoak

Sabino Arana 3, 48140 IGORRE (Bizkaia)  
Tel. 94 657 70 03 - olaxteoptika@hotmail.es

## DUATLOIA

## Mendi duatloia Zeberion

## Erredakzioa

Zemendiaren 15ean, Zeberioiko I. Mendi Duatloia izango da. Proba hau Euskal Herriko mendi duatloi zirkuituko proba puntuagarrria izango da. Duatloia goizeko 10:00etan hasiko da. Partaideak 5 km. karran, 12 km. mendi bizikletan eta, ostera be, beste 2 km. karran egin beharko dabez.

Euskal Herriko mendi duatloi

zirkuitua, 2010ean sortu zan Euskal Herrian dagozan mendi duatloiak bat egin eta zirkuitu bat osotuteko. Izena aldeztetik aurretik mendiduatloia.com webgunean emon daiteke 15 euro ordainduta, edo egunean bertan 20 euroko prezioan.

Abenduaren 13an, Zeanurin Euskal Herriko mendi duatloi zirkuituko beste proba bat egongo da.



## RAIDA

## Paraje ederrak ezetu ebezan Arratia Raid-eko partaideak



Parte hartzaileak Dimako frontoi txikian.

## Erredakzioa

Berrogeta hamaika bikotek hartu eban parte, Arratia Raid eta Areatzako Lamino Taldeak antolatutako IV. Arratia Raiden.

Probaa Aralar taldekoak irabazi eban. Orientazio aldetik, "nahiko gaxa" izan zala dinoe antolatzaileak.

Proba gogorra izan zan baina partaideak pozik amaitu eban.

"Jentea oso gustura ikusten zan, trekkingeko gorabeherak kontetan batez be eta baxotxa bera non galdu dan irribarreagaz kontetan, hori bai, danak itzelezko lekua ezetu dabela eta poz-pozik" azaldu deutso BEGITURI Gaizka Agirre antolakuntzakoak.

## Ur-saltuko balizea inok ez eban hartu

Partaideak Dimako herritik gailan egin, bulderrean eskalau, giza proba eta memoria proba eginez ekin eutsien Raidari. gero, Artaunera bizikletaz igon eta zerbaist jan ondoren, probearen parterik gatzenari egin behar izan eutsien aurre.

Etapa Nagusia Aramotzen izan zan. Partaideak punta batetik bestera zeharkatu behar izan eban mendikatea, Mugarrapetik San Kristobal ganeraino, Artaun tontorra igonda. Tartean, baso baten tirolina egin behar izan eban. Etapa luzea eta gogorra izan zan, eta orientazio aldetik nahiko gaxa. Barriro be, zerbaist jan eta Bargondiarantza egin eban, Baltzola eta Bentatxuritik behera. Paraje eder haretako ur-saltuan baliza bat egoan, baina inok ez eban astirik euki balizea hartzeako.

## Udarako BEGITUREN kamiseta barriak salgai



10 eurotan, Begitu-lagunak 8 euro

Bialdu mezua [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com)  
helbidera neurria adierazoz

Arratia, Ubide eta Zeberioko euskerea eta kulturearen alde

Hamabostero Begitu zure etxean

**begitu**  
arratia ubide zeberio

12 urte eta  
gehiago

Egin zaitez zeu be Begitu-lagun

Etxean jasoko dozuz Zertu Kultur Elkarteak ateratako produktuak.  
Hamabostean behin, sariketa-zozketan parte hartuko dozu.

Izen Abizenak

Helbidea

Telefonia

E-posta

Kontu korronteko 20 digitoak

Urteko kuota aukeratu:

■ 35€

■ 55€

■ 75€



Moztu eta bidali helbide honetara:  
Zertu Kultur Elkartea, Herriko plaza 24. 48142 Artea

## FUTBOLA

# Arratia bigarren postuan

**Ainhoa Duñabeitia**

Arratia futbol taldeko andrazkoak zapatuan, urriak 31, jokatu eben etxetik kanpo atzen partidua. Oirtzun futbol taldea izan eben aurkari eta 0 eta 3ko emoitzeagaz amaitu zan partidua. 3 puntuak etxera ekarri ebezan beraz. Bigarren postuan dagoz arratiarrak orain, lehenengo postuan dagoan Bizkerre taldearengandik 3 puntura. Hurrengo neurketea etxean izango dabe atzenengo postuetan dagoan Lakua talde gasteiztarraren kontra.

### Gizonezkoak galdu

Gizonezkoak barriz, 0 eta 2 galdu eben Lekeitioren kontra Urbietan jokaturako norgehiagokea. Parti-

du txarra arratiarrena, irabazteko gogo faltarik ez, baina gola falta. Lehenengo zatian heldu zan lekeitiarren gola; Arratiak aukerarik izan eban baina golik egin ezin. Bigarren zatian aurkariaren bigarrena heldu zan eta hirugarrena egiteko be aukera euki eben baina Arratiaren atezainak geldiketa itzela egin eban. Hurrengo neurketea Somorrostoren kontra izango dabe.



## AZKOREA

# Olasagastik apostua Atutxa II.ari



### Irati Urien

Joxe Mari Olasagastik erronkea bota deutso Aitzol Atutxari. Tolo-sako "Kantabriko" tabernan ipini deutso zitea dimoztarrari eta itxaroten egongo da Igeldoko azkolaria zemendiaren 11n, arrastiko 19:00etan. Beteranoa gaztearen aurka. Olasagastik, bakotzak hamabi oinbiko moztutea proposatu deutso. Bigarren urtez Euskal Herriko txapeldun izan dana, Olasagastirengandik datorren apustu barri baten aurrean dago. Ea bigarrenengan zer.

## ZIKLO-KROSA

# Podium-ean hainbat arratiar denporaldiaren hasikeran

### Erredakzioa

Hasi da ziklo-kros denporaldia eta ondo hasi dira arratiar txirindulariak. Denporaldia Urduñan hasi zan urri bigarrenaren 12an. Mikel Epalza podiumean egon zan, hirugarren eginda. Dimako Tiritu taldekoak be lasterketa onak egin ebezan: Aingeru Artetxek 8. egin eban eta Joseba Garaitak hamargarren. Master 40 kategorian Manu Quintanilla Igorrekoak hirugarren egin eban. Lehenengo aldia izan zan Urduñako Hiriko Ziklo-kros Sari Nagusia jokaturen zana, baina ondo antolatuta egon

zan eta jente asko hurreratu zan hara.

**Mikel Epalza irabazle Abadiñon** Abadiñoko II. Ziklo-kros Sari Nagusia Mikel Epalzak irabazi eban Master 30 kategorian eta Aingeru Artetxek seigarren egin eban.

Hurrengo egunean, Karrantzan, Elite mailan Julen Zuberok bederatzigarren egin eban. Arratia Ziklista Elkarteko Jose Antonio Mazaira, azkarrena izan zan master 50eko kategorian. Mikel Epalzak, seigarren eta Aingeru Artetxek zazpigarren egin eben Master 30ean.



Mikel Epalza podiumaren erdian.

publizitatea  
94 631 73 14 eta 649 979 115



[www.begitu.org](http://www.begitu.org)

Gugaz harremanetan ipinteko  
94 631 73 14 eta 649 979 112  
[begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com)



# Udagoien honetan zuretzako arropa galanta!

946.319.008  
658.195.031

Sartu gure Facebook-eko orrian  
[www.facebook.com/galanta.lenceria](http://www.facebook.com/galanta.lenceria)

Agirre Lehendakaria 23  
48.140 Igorre  
[galanta@hotmail.es](mailto:galanta@hotmail.es)

GALANTA  
zure arropa

M. JOSE



[www.facebook.com/galanta.lenceria](http://www.facebook.com/galanta.lenceria)



## MUSIKEA

## Tania de Sousa Igorreko Kultur Etxean

## Erredakzioa

Zemendiaren 14an, 21:00etan, Tania de Sousak, *Tania Tank* bere bakarkako lehen diskoko abestiak kantauko ditu Igorreko Kultur Etxean.

De Sousa The Dispositives eta Zuloak taldeetako partaidea izan zan bakarkako bideari ekin aurretik. Bere lehenengo disko hau 2014ko maiatza eta bagila bitartean grabau zan Tolosan, Bonbereneako estudioan, Karlos Osinagaren "Txap" agindupean eta Fermin Muguruzak ekoiztu dau.

Hamabi kantuetan pop melodiak nagusitzen dira. Punk-rock abestiak be badagoz; baita baladak, folka edo "disko" ikutuak dituenak. Hitzak, amodio eta desamodiozkoak dira, batez be. Zuzeneko poderetsua eta abots nabarmena dauka De Sousak, baina une lasaiak be izango dira



Tania de Sousa.

kontzertuan, entzuleak musikea beste modu baten barneratu dagian.

Tania De Sousagaz, Fermin Bouza (gitarrak, koruak eta sintetizadoreak), Maitane Alonso (bajua) eta Ander del Sol (bateria) izango dira.

## LEHIAKETEAK

## Igorreko Film Laburren Lehiaketea martxan



## Erredakzioa

Igorreko Udalak, euskerazko film laburren ekoizpena sustatzeko asmoagaz, aurten laugarrenez, Luzetu Barik Lehiaketea ipini dau martxan. Lehiaketa honetan edozeinek hartu ahal dau parte eta gaia librea da, baina euskeraz egon behar da filma. Lanak bialduteko epemuga abenduaren 2a da eta lanok udaletxean edo Kultur Etxean aurkeztu behar dira.

Filmeen gehieneko iraupena 15 minutukoa izango da kredituak barne, eta DVD formatoan aurkeztu behar dira. Gazteentzako eta umeentzako atalean, barriz, minutu batetik gorako grabazioak aurkeztu daitezke, baita eskuko

telefonoagaz grabatukoak be.

Filmagaz batera, egilearen edo lantaldearen datuak, izen-abizenak, eta kontakturako telefono bat; film laburraren kopia bat eta lanaren argazki bat, erresoluzino onekoa, aurkeztu behar dira.

## Sariak

Lau sari egongo dira: film labur onenarentzako 1.000 euro; Arratiako egileen lanik onenarentzako 600 euro; 14 eta 25 urte bitarteko kategoriako film onenarentzako 500 euro eta, umeen kategorian, 7 eta 14 urte bitartekoan, 200 euro. Sari guztiak legez jagokien zerga-atxikipena izango dabe.

## LEHIAKETEAK

## Idoia Garzesek irabazi dau Dimako Kalenturak Ipuin Erotikoen II. Lehiaketea

Idoia Garzes Aldazabal Lasarte-Oriako kazetariak irabazi dau aurtengo Dimako ipuin erotikoen lehiaketea. Epaimahaikoak hizkuntzaren aberastasuna, egituraketa, orijinaltasuna eta tonu ironikoa hartu ebezan kontuan ipuina saritzeko. Bigarren saria, Mattin Izagirreraren "Baño ze ostia dek hau" ipuinarentzat izan zan. Arratiako ipuinik onena Zefe Ziarrustaren "Haizearen

orrazia" izan zan, epaimahaikoen eretxian.

Maite Artabek, Borja Estankonak, Edorta Jimenezek eta Rafa Ugaldek aurkeztu eben sari banaketa ekitaldia urri bigarrenaren 23an. Inun eta Bihotz Gorospereen kantuak hasi zan ekitaldia, gero "Agur erotikoa" jantza estrenau zan, ondoren sari banaketea eta ostean kopau erotikoa dastatu eben bertaratutakoak.

## Idoia Garzes: "Artzainari Dimas izena ipintekotan izan nintzan"

## Erredakzioa

Idoia Garzes kazetariak telebistan egiten dau lan informatiboetan, zenbait saiotan gidoigile moduan eta erredaktore lehiaketa desbardinetarako galderak prestatzen. Narrazioez gainera, antzerki lanak be idazten ditu Garzesek eta aurten Bilboko Antzerki Labor Lehiaketea irabazi dau. "Gatzagia" ipuina Dimako lehiaketarako sortu eban beren-beregi.

## Zein izan da zure orain arteko ibilbidea literaturan?

Idatzi, betidanik idazten dot. Baina ezin leiteke esan ibilbide literario bat dodanik. Txikitik eta gaztetan herriko literatur lehiaketea irabazitakoa naz, eta aurten Cafe-Bar Bilbao Antzerki Labor Lehiaketea irabazi dot "Buruaz norbere egin" lanagaz. Eta Dimakoa, bai! Eta izugarri eskeretzen deusat epaimahaiari nire lana saritu izana.

## Zelan jakin zenduan Dimako lehiaketaren barri? Zergaitik ebatzi zenduan aurkeztea?

Herriko liburuzainak deialdi desbardinen barri emoten dabe paretetan oharak ipinita. Igaz ezetu neban Dimakoa. Orduan bururatu jatan "Gatzagia" lanaren idea, Arratian egonda Dimak oraindino halako artzain giroa gordeko ebalu eta idea aproposa iruditu jatan. Gauza da apur bat alferra be banazala, eta ez nebalu igazko idatzi. Aurten buruari gogor egin, idatzi eta aurkeztu neban. Gustura idatzi neban eta gus-

tura geratu nintzan emoitzeagaz. Eta inok irakurrita neuk adinako gustua hartzean badau, ba bejondeiola!

## Kontau apur bat nondik nora doan ipuina.

Mendian min hartutako mendizale baten eta artzain baten arteko istorioa da Gatzagia. Eta tartean artalde bat dago, jakina. Gehiago kontetan badot grazia guztia kentzean deusadala uste dot. Beraz, honaino baino ez dot kontauko. Hori bai, "Gatzagia" irakurrita irakurleak ardienean gauza dezente ikasiko dauala esan neike.

Lehen esandako moduan Dimarako beren-beregi idatzia dago; pentsa, artzainari Dimas izena ipintekotan izan nintzan.

## Narrazioaz gainera, beste genero literarioirik landuten dozu?

Gehienbat narrazio laburrak idazten dodaz. Gauza txikiak. Niri gainera, irakurleari halako esgintze-mentala, buruko luxazino, eragitea gustetan jata, eta ez dot uste lan luze bategaz hori egiten asmatuko neukenik. Antzerkiak be idatzi dodaz, herrian halako parodia bat antzezten dogu urtero eta bertarako gidoiak idatzi izan dodaz; Olentzeroren etorrerako antzerkitxoak, irakurketa antzeztu batzuk...

## Ze panorama ikusten dozu euskal literaturan?

Ni izatekotan irakurlea baino ez naz. Euskal literatura irakurten dot, bai, eta gustura gainera, egun zer idazten dan jakitea gustetan jata eta. Danetarik dago, gustu kontua be bada jakina. Nik literatura osasuntsu

ikusten dot, baina ez dakit irakurleak hain osasuntsu dagozan. Ez dot uste euskeraz asko irakurten danik. Beste hizkuntzakaz seguru gauza bera gertatzen dala, baina euskereagaz argiago ikusten dot. Egile asko daukaguz, konsagrauak zein barriak, eta maila handia dago (ez danen artean) baina ez dakit euren lanak irakurten diran. Ni saiatzen naz argitaratzen dana irakurten, edota kritikak, une honetan zer egiten dan jakiteko. Ze gero eta lan gehiago kaleratzen da eta ezinezkoa da dana irakurtea.

## Nortzuk dira zure erreferenteak literaturan orokorrean eta literatur erotikon?

Niretzat erreferenteak klasikoak izango dira beti. Txikitatik irakurten dot, abenturak hasieran Verne, Twain, Salgari, Homero, Baroja... Errusiarrak beti izan dodaz gustuko Dostoievski, Tolstoi, Txekhov... Jane Austen izugarri gustetan jata, Virginia Woolf, Yourcenor, Thomas Mann, Cortazar, Delibes... zerrendea amaiezina da. Saizarbitoria maisu bat da, Aingeru Epaltzaren azken trilogia izugarria, Xabier Montoia eta Eider Rodriguez laburrean... Dana dot gustuko.

Literatura erotiko gitxi irakurri dot. Saderen gauzaren bat, Anais Nin eta aspaldi barre handiak egin nebazan Samaniegoren "El jardin de Venus" lanagaz.

## Zer da zuretzat idaztea?

Batek daki! Koaderno asko daukadaz berbaz josita, berba barri bat topau eta koadernora, bateren baten aipua irakurri eta barrura, onomatopeia bat izan daiteke, sasoi bateko berba "zaharra", esamolde bat... danak daukie halako oihartzun bat, garatu ezker, berbeari tiraka eginda, etorriko dan istorio baten promesa... Lanarengaitik hiztegi artean asko ibili naz eta altxorra topau dot. Koadernoak eta koadernoak daukadaz... Lehen esan dot, oster, alfer xamarra nazala, eta askotan berba horreek gordetzen dabezan istorioak buruan eukiteagaz nahikoa daukat, papelean garatzeko preminarik ez dot izaten. Baina batzuetan, buruari erronka bota eta gogor eginda, "tatxan": istorioa papelean gauzatzea lortzean sentiduten dodan zoriona izugarria da. Horixe da akaso, niretzat, idaztea: zoriona. Gatzagiagaz sentidu neban, eta pasada bat da.



Mattin Izagirre, Idoia Garzes irabazlea eta Zefe Ziarrusta.

## ZINE KLUBA

# Sofia Coppola zuzendariari eskeinitako zikloa Igorren



Lost in Translationeko irudi bat.

### Erredakzinoa

Sofia Coppola (New York, 1974) zuzendariaren hiru pelikula ikusteko aukerea egongo da, zemendiaren 5, 12 eta 19an, arrastiko zortziretan, Igorreko Lasarte Aretoan. Hurrengo zuzendariaren hiru pelikula ikusteko aukerea egongo da, zemendiaren 5, 12 eta 19an, arrastiko zortziretan, Igorreko Lasarte Aretoan. Hurrengo zuzendariaren hiru pelikula ikusteko aukerea egongo da, zemendiaren 5, 12 eta 19an, arrastiko zortziretan, Igorreko Lasarte Aretoan.

Lehenengoa, *The Virgin Suicides*, Jeffrey Eugenides-en izen bereko nobelan oinarritutako filma da. Sofia Coppola zuzendariaren opera prima. Bertan Lisbon familiaren istorioa kontetan da. 70. hamarkadan, uri amerikar baten bizitegi-auzune baten Lisbon familia bizi da. Mutil guztiak familia horretako bost ahizta ederrakaz egiten dabe amets. Ceciliak, gazteenak, hamabi urteagaz bere

buruaz beste egiten dau. Hogei urte beranduago, gertatutako ezin ahaztuz, mutil hareek gertaerea ulertuten saiatzen dira.

### Arrakasta handiko filma hilaren 12an

Sofia Coppolaren bigarren lanak, *Lost in Translation* filmak arrakasta handia izan eban kritika zein publikoaren aldetik. Personaje nagusiak Bill Murray-k eta Scarlett Johansson-ek egin eban.

Bob eta Charlotte Tokyon alkar ezagutzen daben iparamerikar bi dira. Bob, gainbeheran dagoan aktorea, whisky iragarki bat egitera etorri da, eta Charlotte bere senarra laguntzera. Euren artean adiskidetasuna sortzean da edo, akaso, zerbaist gehiago.

### Benetako gertaeratan oinarrituta

Zikloa amaituteko, *The Bling Ring* pelikulea ikusteko aukerea egongo da. Sofia Coppolak idatzi eta zuzendu eban film hau benetako gertaeretan oinarrituta eta nerabe batzuk egindako lapurretak kontetan ditu.

Los Angelesen persona ospetsuen eta marken unibersoagaz liluratuta, nerabe batzuk interneten arakazten ditue famaduen agendak euren etxeetan lapurtzeko. 50 bat etxetara sartzean dira eta hiru miloe dolarretik gora lapurtzen dabe lujuzko objektuetan.

## ERAKUSKETEAK

# Arratiako tranbia Bilbon



Bilboko Arriaga aurrean tranbia.

### Jon Urutxurtu

*Bilbotik Durango eta Arratiarako Tranbia Elektrikoa. 50 urte Arratiako Tranbia barik* erakusketea ikusgai egongo da Bilbon, Bizkaiko Foru Liburutegian uri bigarrenaren 30etik abenduaren 29ra arte. Honako orduetegi hau dauka: asteleheneretik barikura 10:30etik 14:30era eta 16:30etik 19:30era eta zapa-tuetan 10:30etik 13:00etara.

Ehun urtetik gora igaro dira, gehienbat Arratiako tranbia izenez ezetuten dan Bilbotik Durango eta Arratiarako Tranbia Elektrikoa jaiotzeko; eta 2014ko zemendiaren 30ean bere heriotzearen 50. urteurrena bete zan. Urteurrena atxakiatzat hartuz, eta garraio bide zahar haren gorabeherak ezetutera emoteko asmoz, Zertu Kultur Elkarteak,

Bizkaiko Foru Aldundiaren babesaz, *Bilbotik Durango eta Arratiarako Tranbia Elektrikoa. 50 urte Arratiako Tranbia barik* erakusketea ibiltaria antolatu dau.

150 argazkik, zinema irudiak (Julian Elejoste, Felipe Manterola eta NODOaren grabazioak), prensa albisteak, grafikoak, tranbiagaz zerikusia daben zenbait objektuk, eta bidaiariaren eta merkantzien garraiorako tranbien maketak osotuten dabe erakusketea.

Erakusketea ibiltari honek Zea-nurin hasi eban bere ibilbidea urtailaren 30ean, eta hurrengo geldialdiak Igorren, Azpeitiako Burnibidearen Euskal Museoan, Lemoan, Galdakaon eta Areatzan egin ditu. Bizkaiko Foru Liburutegia izango da bere ibilbidearen atzen geralekua.

## MUSIKEA

# Azaro Musikala Artean

### Erredakzinoa

Santa Zezilia edo Xixili deuna, musikearen patroia zemendiaren 22an ospatuten dala eta, Arteako Kirol, Kultur eta Euskera Taldeak (AKKT) Azaro Musikala antolatu dau, aurten hirugarrenez.

Holan, zemendiaren 13an, kontzertu bi egongo dira. Arrastiko 19:30ean kontzertu didaktikoa egongo da ludotekan, Arozenatarren Ttuntuna taldearen eskutik. Gaubeko 21:30ean, barriz, Herriko Bentan Aneika Ara rock taldeak joko dau.

Jazz zaleak, Bilboko Euskalduna Jauregi joateko aukerea izango dabe hilaren 19an, Boss & China Moses taldearen kontzertura. Bertara joateko Areatzako AKKBk eta AKKTK autobusa ipiniko dabe.

Hilaren 20an, 15:00etan, Santa Zezilia ospatuteko, "Arteako eskolan musika ere bai" jardunaldia izango da. Iluntzeko 20:00etan, Andra Mari parrokiaren, Luis Iruarizaga Abesbatzak, Arratiako Musika Eskolak eta Arteako umeak kontzertua eskeiniko dabe.

Hurrengo egunean, rock kontzertua egongo da Batzokian.

Hilaren 28an, 19:30ean Ekomuseotik hasita, poteoa tabernetatik tritixetara eta magiak lagunduta. Gaubean, The Bilus Moon taldearen blues-soul kontzertua Ekomuseoan.

Amaitzeko, zemendiaren 30ean Musika Eskolako ikasleak kontzertua eskeiniko dabe ludotekan zazpiretan.

## DUNBA

# Lucy in the Sky with Diamonds

### Arteko 2. zikloko ikasleak

2. zikloko ikasleak Giza Eboluzioari buruzko proiektua landutea ebatzi dogu. Ba al dakizue nor dan Lucy?

Lucy *Australopithecus afarensis* bat zan. *Australopithecus* berbeak "hegoaldeko tximu handia" esan gura dau. Ez eban tximinoen antzik, ezta gizakiaren antzik be: bietatik eukan.

Orain dala 3.600.000 urte, Etiopian bizi izan zan, zugatzen eta sabanaren artean. Lucy, bere tribuagaz batera, gazelen, antilopeen, hagin zorrotzeko tigreen eta elefanteen artean bizi zan. Metro bat eta 10 zm neurtzen eban, 25 kg ebazan eta gitxi

gorabehera 20 urte eukazan. Lau ume ebazan eta haurdu egoan.

*Australopithecus* hainbat espezie garai berean bizi izan ziran Afrikako sabanan. Holan, Lucyk bere familia galdu eban, eta sabana erdian egoala beste talde bategaz topo egin eban: *Australopithecus anamensis* taldea. Lucy, euren gaur hurbildu zan eta *anamensis* taldean sartzean itxi eutsien. *Australopithecus anamensis* taldean sartzeako, Lucyk haragia jan behar eban, euren haragijaleak ziralako, baina bera belarjalea zan, frutuak, bedarra eta insektuak jaten ebazan. Lucy, harrituta egoan *anamensis* egiten eban guztiagaz, baina eurakaz batera joatea lortu eban.



Lucy, humanidarearen amama.

Lucyk eta *Australopithecus anamensis*ak, janaria bilatzeko ibilbide luze bat egin behar eban baina bidean traba bat topau eban: erreka handi eta emaritsu bat.

Lucyk ezin eban erreka zeharkatu eta beste aldera pasau. Haurdu egoan, hanka laburrak zituan eta ez ekien uger egiten, *anamensis*ak oster, bai. Taldea beste aldera



pasau zan eta Lucy bakarrik gelditu zan. Ez eban bakarrik gelditu gura eta baten baino gehiagotan erreka zeharkatzen saiatu zan baina ezin izan eban eta atzenezan ito egin zan.

Lucyren fosila Etiopian aurkitu eban 1974an. Aurkikuntza ospatzen ebizala, arkeologoak The Beatles taldearen "Lucy in the Sky with Diamonds" kantua entzun eban eta horregaitik, Lucy izena ipintea ebatzi eban.

## AGENDEA

ZEMENDIAK 3  
ARRATIA

Zemendiaren 11ra arte Beldur Barik Lehiaketan parte hartzeako epea zabalik.

## IGORRE

19:30ean aurrekontu parte-hartzaileen batzarra. Urkizu-Garakoi. Txokoan.

Abenduaren 2ra arte, Luzetu Barik euskerazko film laburren lehiaketara lanak aurkezteko epea. Udaleko Kultura Arloan edo Kultur Etxean.

## LEMOA

Hilaren 13ra arte, Lemoako bigarren eskuko azokarako izena emoteko epea. Udaleko Kultura Zerbitzuan.

ZEMENDIAK 4  
AREATZA

19:30ean, Aitor Bergararen zientziari buruzko berbaldia "XXI. menderako argia".

## IGORRE

18:00etan aurrekontu parte-hartzaileen batzarra. San Juan. Txokoan. 19:30ean aurrekontu parte-hartzaileen batzarra. San Kristobal. Txokoan.

ZEMENDIAK 5  
ARTEA

19:00etan, auzo batzarra Kultur Etxean. Bildosola, Mendieta, Gaztelu, Agarre, Bistalegre, Elexabeti, Gallao, Madaria, Ibarretxe, Olabari, Ugaldeta, Igetza, Sarasola, Garaiurkiola eta Kukutze auzuneetakoak.

## IGORRE

18:00etan aurrekontu parte-hartzaileen batzarra. Gazteria. Gaztebe. 19:30ean aurrekontu parte-hartzaileen batzarra. Garbe-Mikele. Gaztebe.

20:00etan, zine kluba *The Virgin Suicides* (Sofia Coppola, 1999) Lasarte Aretoan.

## ZEANURI

18:00etan, Mazala Andra Taldeak antolatuta, jente aurrean berba egiteko ikastaroa hasten da. Kultur Etxean.

ZEMENDIAK 6  
AREATZA

19:00etan, Areatzako Emakumeen Foroak egindako *Areatzako emakumeen memoria eta bizi esperientziak* dokumentalaren aurkezpena.

Udaletxeko Aretoan.

## DIMA

19:00etan Gure Esku Dagoren batzarra herri galdeketea prestetako. Elexalde gelan.

19:30ean, "Etxean gura doguz" presoan aldeko konzentrazioa. Plazan.

## IGORRE

19:00etan erakusketea, Memoriaren bankua. "Igorreko historia XX. mendean. Igorretarron



## Katixa Agirrerren nobelearen aurkezpena

Katixa Agirrek helduentzako bere lehen nobelea *Atertu arte itxaron* (Elkar) aurkeztuko dau Igorreko Kultur Etxean zementiaren 16an, 18:30ean.

2010. urtetik Igorren martxan dan irakurketa tailerra osotutera dator aurkezpena, bertan, idazleagaz beragaz komentau ahal izango da liburua.

Agirre ikus-entzunezko komunikazionario doktorea da, eta EHU irakaslea. 2007an argitaratu eban bere lehen liburua, *Sua falta zaigu*, ipuinak edo istorio laburrak osotutakoa. Zutabegilea izan da hainbat hedabidetan eta Argian kolaboretan dau. 2003an Ernestina de Champourcin poesia saria irabazi eban, eta 2005ean Emakumeak Kontari ipuin lehiaketara. 2007an Igartza Saria jaso eban, *Etxetik irten gabe* izenburua izatekoa zan ipuin-liburua idazteko; emoitzea 2009ko zezelean argitaratu eban, baina *Habitat* izenburuagaz. Horrezaz gainera, umeentzako hainbat liburu be idatzi ditu, *Paularen seigarren atzamarra*, *Ez naiz sirena bat, eta zer?* eta *Patzikuren problemak*. 2010ean, Amaia Lapitz Saila hasi eban, gazteentzako nobela sorta bat, Amaia Lapitz abenturazalearen istorioak kontetan dituan.

ahotik" Kultur Etxean. Hilaren 26ra arte.

18:00etatik aurrera Garagardo Fest Kiñu Gaztebe. Euskal garagardoak dastatzeko aukerea. 20:30ean kontzertua Txokorrak taldeagaz.

## LEMOA

19:00etan, Ganzabalek antolatuta, *Stretching* saioa Jubiladuen etxeko goiko aretoan.

ZEMENDIAK 7  
ARANTZAZU

Arginatx Mendi Taldeak mendia urtenaldia Erenoko San Martinera.

## AREATZA

Parkebeak antolatuta, mendia urtekera. "Bizkaiko mendizaleatasunaren historia" Iñaki Garcia Uribeagaz.

19:00etan, Blues tailerra Phil Rizagaz; 20:00etan, Phil Rizaren kontzertua. The Quiet Corner-en.

## IGORRE

Axular Libre Eguna. 10:30ean gosaria pintxoakaz; 11:00etan berbalapiko: Axular zer?; 12:00etan LIBRE olgetan poteoa; 14:30ean "bASKERie" (tiketak herrikoan salgai. 10€ langileak, 7€ langabetuak); 17:00etan Mus Txapelketa; 21:00etan, kontzertua: Jakemate. Axular Herriko Tabernan.

22:00etan zinea *Un dia perfecto* filma.

## LEMOA

Ganzabal Mendi Taldeak antolatuta, goizeko

urtenaldia Arratiatik, perrebiko bilketea.

ZEMENDIAK 8  
IGORRE

10:30etik 15:00etara Eizu Change azokea Kiñun.

17:00etan ikusle guzientzako zinea *Atrapa la bandera*. 19:30ean *Un dia perfecto* Kultur Etxean.

## LEMOA

10:00etatik 15:00etara, XVI. Nekazaritzako Elikagaien Azokea Elizondon. 13:00etan, Abetako plazan eta azokan Arratiako Musika Eskolako trikitilariak eta Lemoako Korala kantu-kalejiran ibiliko dira. 10:00etatik 15:00etara, Ganzabalek antolatuta erakusketak mikologikoa Abetako plazan.

18:30ean, Emaik antolatuta, *Mujeres kurdas en contra del ISIS* dokumentala Karbie Gaztebe.

ZEMENDIAK 10  
IGORRE

18:00etan aurrekontu parte-hartzaileen batzarra. Gezala-Basauntz. Udaletxean.

ZEMENDIAK 11  
ARRATIA

10:00etatik 12:00etara "Enpresan ere berdintasuna lantzen" izeneko aurkezpena Arratiako Udalen Mankomunidadeak antolatuta. AUMeko egoizan. Arratiako enpresa eta merkataria aurkeztu gura deusez zer eta zelan landu daitekean andren eta gizonen berdintasuna.

## IGORRE

18:00etan aurrekontu parte-hartzaileen batzarra. Jubiladuen Jubiladuen. 19:30ean aurrekontu parte-hartzaileen batzarra. Kultura eta Kirola. Kultur Etxean.

## ZEANURI

19:00etan Arratiako Alborra jokoaren aurkezpena Udaletxeko Batzar Aretoan.

## ZEMENDIAK 12

## IGORRE

20:00etan, zine kluba *Lost in Translation* (Sofia Coppola, 2003) Lasarte Aretoan.

## LEMOA

19:30ean, aurrekontuetarako herri batzar zabala, Jubiladuen Etxeko goiko solairuan.

## ZEANURI

18:00etan, Mazala Andra Taldeak antolatuta, jente

aurrean berba egiteko ikastaroa.

ZEMENDIAK 13  
ARANTZAZU

21:00etan, Sanmartinetako V. bertso-afaria Montero tabernan. Bertsolariak: Arkaitz Estiballes eta Fredi Paia.

## ARTEA

19:30ean, kontzertu didaktikoa ludotekan Arozenatarren Tiuntuna taldearen eskutik; 21:30ean, Aneika Ara rock taldearen kontzertua Herriko Bentan.

## ZEMENDIAK 14

## DIMA

Dimetal Fest. 12:30ean berbaldia, Gorka Bizar (Idi bihotz ohia), Dani Alvarez (Hlandia, EITB) eta Jevu Jevardo (Reno Renardo) Gaztebe; 13:30ean, metalpoteoa, ondoren bazkaria frontoi handian; 17:00etan, bertso-saioa, Estiballes eta Paia; 18:00etan metalbarangea Dimako tabernetatik; 19:45ean, aurkezpena frontoi bikian; 20:00etan, Nik Khaos frontoi bikian; 21:10ean, Unholy Covers Gaztebe; 22:15ean, Childrain frontoi bikian; 23:45ean, zozketea frontoi bikian; 00:15ean, The Wizards Gaztebe; 01:30ean, Celtibearen frontoi bikian; 02:45ean, Sepultado Gaztebe.

## IGORRE

21:00etan, *Tania Tank* Tania de Sousaren kontzertua Kultur Etxean.

## ZEMENDIAK 15

## AREATZA

08:00etan, Lamino Mendi Taldeagaz urtekera. Galarraga Sodupetik. 13 km. 900 m. ko desnibela.

## IGORRE

17:00etan ikusle guzientzako zinea *Minuculos: El valle de las hormigas perdidas*. 19:30ean *Regresion* filma Kultur Etxean.

## ZEBERIO

10:00etan, Zeberio I. Mendi Duatloia  
20:00etan, zinea *Ni dios, ni patrón, ni marido*. Plazako ermitan.

## ZEMENDIAK 16

## LEMOA

Hilaren 22ra arte, Kirol Astea.

## IRAGARKI LABURRAK

## SALDU

## SALGAI

Bogaboo-a eta haska zuria saltzean dodaz. Deitu 679 909 869 telefonora.

## SALGAI

Relax modua daukien narruzko sofa eta besaulkia saltzean doguz. Deitu 653 727 047 telefonora.

## DANERIK

## BEHAR BILA

Persona nagusiak eta haurren zaintza edo etxeko beharrak egiteko laguntza behar dozu? Deitu konpromiso barik.

Grisel 678 104 166.

## APARKALEKU ITXIA

Karabanak, autokarabanak... gordetzeko aparkaleku itxia, pabilioi baten barruan. Plaza zabalak, zenbatuak, baktotxa aseguru eta alarmeagaz. Ur lohiak garbitzeko komuna. Arratian. 671 549 015 (Jon).

## ZERAMIKA IKASTAROA

Zeramika ikastaroaren hasikerea urri bigarren! Astean ordu biko klaseak,

arrastietan. Interesautaz bazagoz, animau eta deitu 615 731 182 telefonora (Saioa).

## BEHAR BILA

Etxeko lanak egiten dodaz, 08:30etik 16:00ak arte. Kotxeduna. Dimoztarra. Telefonoa 634 438 725.

## BEHAR BILA

Delineazino lanak egiten dodaz. CAFen esperientziaduna. Ingeniaria. Dima. Telefonoa 635 207 386.

## IRAKASLE BILA

Ume bategaz ingelesez berba egiteko nonoren bila gabiz. Interesatuak deitu 605 755 604 telefonora.

**Zeozer saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat. [begitu@topagunea.com-era](mailto:begitu@topagunea.com-era). Mezuak doban dira.**

## Begitu-lagunen txokoa

## Zenbaki honetako saridunak:

**1** Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera Tania de Sousaren kontzerturako.

Arantza Aldekoa (Igorre)  
Montse Bustinza (Areatza)



**2** Igorreko Udalak emondako Timoteo Atutxa Petralandaren *Idatziak eta gutunak* liburua.

Ruper Lekue (Igorre)  
Iñigo Aranbarri (Lekeitio)



**3** Zerturen argitalpenak jasoko dozuz,


zozketetan sartuko zara.

BEGITUK 13

urte eta ehundaka lagun.

## DENPORA-PASA

IMAN OLATU




### EZKERRETIK ESKOIERA

1.- Hika. 2.- Letra bat. Desira. 3.- Aitaren anaia. Bat erromatar. 4.- Birritan, edurra apurka-apurka jaustea. Aluminioa. 5.- Aztertu. 6.- Birritan, bular. Agur. 7.- Bokala. Ireska. 8.- Emea ez dana. Oxigenoa. 9.- Geldiro.

### GOITIK BEHERA

1.- Ensaladan jaten da. Bokala. 2.- Letra mutua. Soldata. Arsenikoa. 3.- Maindiera. Berba alkarketan, ardi. 4.- Errebedar. 5.- Edo. Aldapa. 6.- Neoia. Etxera sartzeako. Oxigenoa. 7.- Bokala. Itxaropen.




Topau kirola egiteko behar diran zazpi gauza.

S	A	R	R	A	Z	K	I	E	N
O	R	A	M	K	O	T	X	E	A
B	E	K	O	K	E	Z	K	A	R
I	Z	E	T	U	L	A	I	K	E
M	A	R	O	P	A	L	A	P	L
I	A	T	R	O	I	D	Z	O	A
G	T	U	R	R	A	I	E	J	S
O	E	A	A	L	I	A	R	B	O
T	L	E	A	Z	O	A	P	U	A
X	K	I	L	T	X	I	N	G	O
E	I	Z	E	M	O	O	A	U	D
I	Z	A	B	A	K	L	I	K	A
B	I	T	E	L	A	A	E	O	R
O	B	E	T	O	N	B	I	P	E
M	A	R	E	S	O	L	A	K	O

# AKIKI MIKO

I  
m  
a  
n  
O  
l  
a  
t  
u



umean moda  
**seim**  
0-16  
Agirre Lehendakaria, 31 • 48140 IGORRE  
Tfnos. 94 631 92 96 • seimoda@hotmail.com

**BIZARGINAK**  
Ulea era klasiko eta modernoan ebagiten dogu  
Bixarra egin eta txukunduten dogu  
Elexalde, 20 Rober ☎ 630 743 543  
48.140 Igorre Manuel ☎ 661 848 793

**AKEITEGIA**  
**GAY & LORA**  
IGORRE

**ASEGURUAK**  
basolo Emaldi  
Abokatuak  
☎ 620. 57.86.04  
@ aslerabasolo@hotmail.com  
Bilbao-Zeanuri

Recreativos Gubi S.L.  
Angel Larrea  
Zornotza Tfnoa 649 86 95 36

\* KIRRU \* ILEAPANDEGIA  
**SOLARIUM**  
Roberto eta Rosana  
Sabino Arana, 38 bejo - 48140 IGORRE (Bizkaia)  
☎ 94 631 92 00

**MERKA LABELA-HARATEGIA**  
Etxeko produktioak  
• Txerizoaik  
• Odoletzoiak  
• Buzkantzak  
• Saltzirak  
• Harburgesak  
Arratiako produktioak  
• Beseriko etxerak  
• Urtsak  
• Beseriko arraitzak  
• Txarrak  
• Harzoiak  
• Geroha fruta eta barazkiak

**ZUZENBIDE**  
ASEGURUAK: AUTOAK, ETXEBIZITZAK, DENDAK, ISTRIPUAK, BIZITZA...  
ABOKATUAK: ZUZ. ZIBILA, KONTSUMO ZUZ., ADMINISTRAZIO ZUZ., INGURUGIRO ZUZ.  
AHOLKULARITZA: LAN ZUZENBIDEA, ZERGA, KONTABILITATEA  
Tfn. 94 673 71 41 - 94 673 70 55 - 94 612 11 96 - Faxa 94 612 11 96  
Sabino Arana 3, beheko - Igorre (Bizkaia)

**BIXER TABERNA**  
Beko kalea, 2 - Telf. 94 631 73 65 - VILLARO

Jose Luis Corbacho  
**pintura lanak**  
Sabino Arana, 3. 3a ☎ 94-673-70-87  
Igorre 48140 Bizkaia ☎ 609-79-40-54

Pinturas Arratia  
Javi Morato  
Tel. 628 443 992

**ARRATIA AUTOSKOLA**  
karneta eskuratzeko zain direlaraz  
Gorbe, 10 - 48140 Igorre (Bizkaia)  
Telefonoa 94 631 36 31 Faxa 94 673 70 83  
e-posta: vnozku@euskalnet.net

## GRACIA CHACON

**"Naturaren erritmoan biziten saiatzen gara"**

Gracia Chaconek 27 urte baino gehiago daroaz kultura zeltikoa eta druidismoa ikasi eta ikertzen. Mogor eskola druidiko tradizionaleko artxidruida da. Asturiar jatorrikoa, 2006tik Zeanurin bizi da. Ikastaroak emoten ditu kultura zeltikoa zabalduteko eta druidak formetan ditu bere Undurragako eskolan. Izan be, artxidruiden eginkizunetariko bat da hau.

Mogor berbeak labirinto esan gura dau. Gracia Chaconeri inpresino handia egin eutsan Galizan ikusi eban Mogor labirintoa eta izen hori ipini eutsan bere eskoleari. Mogor Kretako labirintoa da, sinbologia handikoa.

**Erredakzioa****Zelan izentau zinduezan artxidruida?**

Urte asko druidismoa landuten pasau ostean, orden druidikoak baloretan dabe ea artxidruida izan zein tekezan ala ez. Nire kasuan, nire irakasle eta aholkularia ingelese eta Ingalaterrako Ordenetan aurkeztu eban azterketea egiteko eskaerea. Onartu egin eban eta 2010ean nire taldeagaz joan nintzan mundu pagano osoko 150 personaren aurrean azterketea egiten. Azterketea gainditu neban eta harrezkeroztik artxidruida naz eta druidak formetako gaitasuna daukat.

**Mundu paganoa esan dozu. Zer da hori?**

Gehien erlijinotik kanpo dagoana: xamanismoa eta sorgintza, esate baterako. Persona jakintsuak dagoz paganismoan. Baina gehien erlijinoetakoak be konbidautu egon ziran egun haretan.

**Druidismoa erlijinoa da?**

Bai. Baina niretzat erlijinoa baino gehiago filosofia bat da. Guk Natura goratzen dogu, baina ez jainkotu. Guretzat biziteko filosofia

bat da, baina erlijinotzat jotzen da druidak zelten abadeak ziralako.

**Zer heldu jaku zelten kulturatik?**

Zelten mundua sakon ezetuten dogula esatea guzurra litzateke. Kultura agozkoa zan eta dakiguna antropologia eta arkeologiaren bidez heldu jaku. Zientzia honeek zelten erritu eta erritualen gainean argia emon dabe eta euren sinesmen erlijiosoak ezetuten doguz gaur. Dana dala, judaismo edo liburu idatziak laga dabezan erlijinoen aldean gitxi ezetuten da druidismoa.

**Ze erritu edo erritual egiten eben druidak?**

Druidak unibersoa behatuta egutegiak egiten ebezan eta noz erein edo noz jaso uzta esaten eutsen jenteari. Paleolitikoan, hoge mila urte lehenago egiten ziran urte-sasoi eta uzten gurpilaren erritu eta erritualak errepikatzen ebezan. Hau da, druidismoak 20.000 urte lehenago gizakien buruan eta oroitzen ziretan egozan errituak errepikatzen ebezan.

**Eta gaur egun ze funtzio dauka?**

Lurra landu eta bere erritmoak

errespetetan dauan edozein baseritarrek egiten dauana egiten dau druidak: lurra goratu. Gizarte honetan Naturaren erritmoen kontra joaten gara askotan eta gu Naturaren erritmoak biziten saiatzen gara; hau da, erritmo horreetatik kanpo ahalik eta gitxi egiten. Adibidez, Naturak neguan atsedena hartzean dau eta gizarte honetan behar gehiena neguan egiten dogu.

Druidismoak harmonia handia emon deusta niri, gizakia behatzeko gaitasuna eta, kontrako emon arren, horrek neure konfiantza personengan handitu egin dau.

Ingalaterran onuradun ikasketatzen jotzen da druidismoa.

**Ikastaro mota bi emoten dozu. Hastapenak, Naturagaz kontaktua eta konzientzia izateko eta druidak izateko ikasketak. Azaldu apur bat.**

Mundu zeltaren gainera ezagupenak izateko hastapeneko ikastaroak daukaguz. Maila bi dagoz hor. Lehenengo maila, oinarrikoa, Naturagaz kontaktua eta horren konzientzia izateko da. Bigarrena, sakonagoa, norberagaz behar egiteko da. Baten, Naturagaz lan egiten da, bestean norberaren naturagaz. Naturaren lau elementuak guran be badagoz eta. Talde txikiak izaten dira, nire ustez edozein esperientziatan inportantea gizatasuna da eta.

Druidak izateko formakuntzea be emoten dot. Hemen hiru maila dagoz: bardoak (koplariak), vateak (poetak) eta druidak. Maila bakoitzean 3 urte egiten dira, druidak izateko gitxienez 9 urte egin behar dira ikasten.

Hogeta hamar ikasle inguru dagoz eskolan.

**Bederatzi urte horreetan zer ikasten da? Ze ikasgai landuten dozu?**

Materia "erreal" komilla artean, eta mundu espiritualean horeri jagokona: hau da, Fisika eta Metafisika, Psikologia eta Parapsikologia... Nigaz fisikariak, ingeniariak, medikuak, abogaduak eta abar koloretan dabe irakasle moduan. Aspaldi honetan, Fisika Kuantikoa izena ipinten hasi da gai druidiko askori.

**Esate baterako?**

Esate baterako guk mobimentu energetiko lez ikasi dogun *wyrd*



sarea, Fisika Kuantikoko mintzen teoria dala pentsau leiteke. Dana konektuta dagoala dino.

**Druidismoa erlijinoa bada, beste erlijinoak bateraezina izango da; filosofia izan ezker, bateragarria. Natura goratzea eta bere erritmoetara egokitzeak ez dau emoten beste erlijinorik ezin dala izan. Druidismoa erlijino katolikoagaz bateragarria da?**

Bizitza hobetuteko ikasten da zelten jakinduria. Gauza asko dagoz erlijino katolikoak erakusten dauanaren kontra dozanak, baina bakotzak gura dauana pentsau daike.

Panteoi zeltikoa politeista izan arren, gu monoteistak gara. Zerbaisten sinesten dogu. Zerbaist hori ez da ez ona, ez txarra; ez maskulinoa ez femeninoa; ez harmonia ezta kaosa. Argia eta itzala. Eta hor egiten dogu gure bizimodu.

**Hierarkia bat badago (druidak, artxidruidak...) Dogmarik?**

Ez dago dogmarik, denporeagaz aldatzen ez dan gauza bat dalako dogma. Katma, barriz, prozesua ulertuta aldatu daitekenena da. Adibidez, dakidanean zelan gertatzen dan eklipse bat, ez dot esango, jainkoak hasarratu egin dirala.

**Hori zientzia da, mitotik zientziara pasatea.**

Zientzia be mito bat da. Beti gagoz posibilitateen munduan, katman. Lehen atomoa zan partikularik txikiena, orain ez. Zientzia eta espiritualtasuna ez dagoz guk uste bezain urrin. Demokrazia be beste mito bat da eta bihar euria egingo dauala ustea, ustea baino ez.

**Giza Eskubideak be mito moduan ulertuten dozu?**

Giza Eskubideak, genero bardintasuna... horreek lehentasuna daukie. Guk sano argi daukagu hori. Hemen horregaz ados ez dagoanik ezin da sartu, gizakiaren naturaren parte diralako. Gure bizitzaren eta gure sinesmenaren parte. Hemen egoteko eskubidea bere eta besteen askatasuna errespetetan dauan edonork dauka. Arau bakarria daukagu eta zera dino: "egin gura dozuna, inori, ezeri eta zeure buruari kalte egin barik".

**Legearen aldetik, Mogor zer da? Erlijino bat ala kultura zelta ikasteko eskolea?**

Parte biak ditu eta hori tramitetan gagoz abogadu bategaz. Alde batetik gitxiaren erlijinoa da, baina beste alde batetik, eskolea da, kultura zelta zabaltzeko kultur alkarte.

**Nobela bat be idatzi dozu.**

Bai. *El enigma de la gruta sagrada* titulupean. Aurkezpena Elkarren egingo da Bilbon, abenduaren 3an. Dana dala, lehendik 240 aleko edizino bat eginda neukan ikasleentzat.

**begitu**  
arratia ubide zeberio

**www.begitu.org**

publizitatea  
94 631 73 14 eta 649 979 115